

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2021eko iraila / 319. zenbakia

www.oñati.eus  



OÑATZ Dantza Taldea



OÑATI

IKUSKIZUN BEREZIA

50. urteurrenari amaiera emateko ikuskizun berezia eskainiko du Oñatz dantza taldeak irailaren 25ean

FÉLIX SÁNCHEZ ARRAZOLA

Gure olinpikoa

Tokioko Olinpiar Jokoetako atletismoko probak bertatik bertara jarritu ditu argazkilari oñatiarrak, Atletismoko Nazioarteko Federazioak akreditatuta



Olinpiar Jokoetan kirol ezberdinetako kirolari onenak egoten dira, eta Felix Sanchez oñatiarra kirol argazkilaririk onenetako bat da egun. Horren erakusle dira azken bi urteetan mundu mailan irabazitako urteko atletismoko argazki onenaren sariak. Horregatik, Felixek ere Tokion egon behar zuen, eta hantxe egon da Nazioarteko Atletismo Federazioak akreditatuta. Tamalez, ez dira amestutako Jokoak izan, pandemiak baldintzatuta egon baitira, baina, hala ere, esperientzia ahaztezina bizitzeko aukera izan du argazkilari oñatiarrak, eta nork daki Tokiotik ekarri dituen 60.000 argazki horien artean ez ote den egongo aurtengo atletismoko argazkirik onena.

Tokion egon ahal izan diren argazkilari bakanetako bat izan da Félix Sánchez Arrazola (@fotorunners). 60.000 argazki atera ditu. Horietako batzuk erakutsi dizkigu.




Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbide: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Londres (2017) eta Dohako (2019) munduko txapelketetan eta Berlingo (2018) Europakoan egona zinen, eta orain zure aurreneko Olinpiar Jokoetan izan zara. Betetako ametsa?

Bai, esan liteke. Estadio olinpikoan egotea berezia da. Gu ez gara kirolari olinpikoak, baina, neurri batean, olinpikoa sentiarazten zaitu, eta aitortzen dut Tokioko aireportuko kontrol guztiak igaro eta akreditazioa jaso nuen unean negar egin nuela. Nahiago nukeen, jakina, Jokoak beste testuinguru batean izan balira, hiri-olinpikoan sartu eta kirolariekin egoteko aukera izan bagenu, baina, hala ere, esperientzia ahaztezina izan da.

Pentsatzen dut ez dela erraza izango Olinpiar Joko batzuetarako akreditazioa lortzea. Nola lortu duzu?

Ez da erraza, ez. Egin kontu, estadio olinpikoan 80 bat argazkilari bakarrik sartzen direla, eta horietako asko agentzietakoak izaten dira. Espainiako Komite Olinpikoak bi argazkilari bakarrik akreditatzen ditu (bat atletismoko probetarako). Nik berandu egin nuen eskaera, baina, zorionez, atletismoko argazki onenaren saria irabazi dudanez azken bi urteetan, Nazioarteko Atletismo Federazioaren bidez lortu ahal izan nuen akreditazioa.

Enkargu bereziren batekin joan al zara?

Ez nire kabuz joan naiz, bidaia eta egonaldia nire pol-



«Ez da erraza izan argazkiak ateratzea Joko hauetan. Ikusleen berotasunik gabe, atletak lotsatiago egon dira, eta emozio keinuak falta izan dira»



tsikotik ordainduta. Dena den, han nengoela, Espainiako Kirol Kontseilu Nagusiarentzako proiektu batean lan egiteko aukera sortu zait (400m.-ko hesidun lasterketen inguruko azterlan baterako irudiak hartu ditugu). Bestalde, nire argazkietako asko *Corredor* aldizkarian argitaratzen dira (bertako argazkilari kolaboratzailea naiz).

COVIDak baldintzatutako Jokoak izan dira. Zenbateraino?

Niri dagokidanez, bidaia antolatzea izan da txarrena. Estres handikoak izan ziren hara abiatu aurreko egunak; betebeharrak berriak egunero, bertan behera geratzen ziren hegaldiak, ezjakintasun handia... Beldur handia sartu ziguten hara joan aurretik,



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS



baina, egia esan, han nahiko lasai ibili gara; estadiora sartu aurretik tenperatura neurtzen ziguten eta listu bidezko PCR proba uzten genuen bertan, baina, gainerakoan, ez dugu aparteko neurririk izan, eta japoniarrak gauzak errazten ahalegindu dira.

Bestalde, konpetizioari eta ikuskizunari dagokionez, oso arraroa izan da dena, ikusle barik, txalo barik, oiho barik... oso hotza eta oso arraroa izan da guztia.

Nolakoa izan da zure egunerokoa?

Goizeko 7ak aldera esnatu eta taxia hartzen genuen 9etarako estadiora egoteko. Hango takila batean uzten genituen kamerak hartu eta goizeko saioen jarraipena egitera, 13:00ak aldera arte. Hotelera bueltatu, bazkaldu, lo-kuluxkatxoa egin eta berriro ere estadiora, arratsaldeko saiora. Gaueko 23:00ak aldera iristen ginen hotelera; zeozer afaldu, eta goizaldeko 02:00ak arte egoten nintzen argazkiak ordenagailura pasatzen. Horrela hamar egunetan. Egia esan, zoratzekoa izaten da hango martxa, baina saltsa horretan ibiltzen gara gustura.

Atera al duzu nahi zenuen argazkia?

Ez da erraza izan argazkiak ateratzea Joko hauetan. Alde batetik COVIDak eragindako mugak zeudelako (argazkilari gutxiago leku bakoitzean), eta, bestalde, giroa oso hotza izan delako; jendearen txalorik, oihurik eta berotasunik gabe, atletak lotsatiago egon dira, eta emozio keinuak falta izan dira.

Askotan, dena den, gutxi uste duzun lekuan eta unean ateratzen duzu argazki onena, eta aurtengo argazki onenaren lehiaketara ia seguru bidaliko dudan argazkia Tokion altuera jauziko proban ateratako bat izango da, le-



Altuera jauziko proban ateratako argazki berezi hau aurkeztuko du ziurrenera atletismoko urteko argazkirik onenaren lehiaketara.



hiaketarako izan zitekeela sekula pentsatuko ez nuen bat.

«Tokiora joan aurretik beldur handia sartu ziguten, baina han ez dugu aparteko zailtasunik izan. Japoniarrak oso adeitsuak eta atseginak iruditu zaizkit. Edukazio handikoak. Alde handia ateratzen digute horretan»

Zenbat argazki atera dituzu Tokion, eta zer egiten duzu horiekin?

60.000 argazki atera ditut. Horietako batzuk *Corredor* aldizkarirako izango dira, eta beste asko stock-ean ipintzen ditut argazkien salmentarako web plataforman ezberdinetan (*Alamy, e-stock...*), munduko edozein komunikabidek edo partikularrek erosi ahal iza-

teko. Aurtun hasi naiz bide hori jorratzen, eta dagoeneko saldu ditut hainbat argazki. Zenbat eta gehiago saldu orduan eta ikusgarriago zaude plataformetan, eta errazagoa da saltzea. Hasi besterik ez naiz egin, baina aukera ona iruditzen zait argazkiei irteera emateko. Nire sare sozialetan ere (@fotorunners) ipintzen ditut tarteka argazkiak.

Kirol ikuspuntutik nola ikusi dituzu Jokoak?

Markei erreparatzen badiegu, izugarria izan da. Munduko hiru errekor (gizonen nahiz emakumezkoen 400m.-ko hesi-lasteketan eta emakumezkoen jauzi hirukoitzean) hobetu dira. Zapatiletako karbono plakek zenbateraino eragingo zuten ez dakit, baina edozein modutan ikaragarria da zenbat marka ondu diren.


Turismoa egiteko aukerarik izan duzu? Zer giro sumatu duzu japoniarren artean? Jokoen aurkako protestak ere izan omen dira.

Azken bi egunetan arratsaldez bakarrik egoten dira atletismoko probak, eta egun horiek baliatu nituen hiriko lekurik esanguratsuenak ikusteko. Footing egitera ere atera nintzen, Tokioko *Shibuya* zebra-bide ospetsuraino, eta, egia esan, ez nuen inolako arazorik izan. Japoniarrak oso adeitsuak, atseginak eta eskuzabalak iruditu zaizkit, edukazio handiko pertsonak. Alde handia ateratzen digute horretan.

Parisen izango dira hurrengo Olinpiar Jokoak 2024an. Joateko asmorik?

Badut asmoa, bai. Gustatuko litzaidake Parisen egotea, eta Jokoak bete-betean bizi ahal izatea. Aurretik, datorren urtean munduko txapelketak, Oregonen (Estatu Batuak), eta Europakoak daude, Munchen, eta horietakoren batera joateko asmoa ere badut. ■

Muga
guztien
gainetik,
amets
guztien
artetik



ELKAR HEZI_n

21 - 22 ikasturtean ere
SEGURU, EROSO ETA LASAI.

idazkaritza@elkarhezi.eus

📞 943 71 82 72

📞 688 621 195

ADI!



Irailean,
hegaldi
berri bati
ekingo diogu.

Hiri Antolaketarako Arauetan aldaketa puntuala egingo du Udalak harrobiaren handitzea onartutako eremuetara mugatzeko

Egin nahi den aldaketaren edukia herritarrei azaltzeko parte hartze programa bat prestatu da

IRAILAREN 14an INFORMAZIO SAIO IREKIA EGINGO DA KULTUR ETXEAN

Udalak 2018ko martxoaren 22an onartu zuen Hiri Antolaketarako Arauen 11, 65 eta 74 artikuluen aldaketa, Gomiztegiko harrobiaren handitzea onartutako eremuetara mugatzeko, hainbat herritarren eskaerari erantzunez. Baina erabaki horren kontrako Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Aridos Aloña SL enpresak, harrobiaren ustiatzaileak, eta errekurtso hori onartu egin zuen EAEko Auzitegi Nagusiak 2020ko ekainaren 26an, ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokion ingurumen-txostena egin gabe zegoela arrazoituta.

Horren aurrean, Oñatiko udalak Araudi SLP enpresari enkargatu zion aipatutako ingurumen-txostena, eta, orain, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak ontzat eman du txosten hori eta, beraz, udalak Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala egiteko prozesua jarriko du berriz ere martxan, aurretik parte-hartze programa eginda, hirigintza-plangintzaren izapidetzea arautzen duen Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak ezartzen duenari jarraiki.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Udalak Hiri Antolaketarako Arauetan egin nahi duen aldaketaren nondik norakoen berri ematea eta horren gainean herritarrek beraiei iritzia eman ahal izateko mekanismoak ahalbidetzea da Udalak prestatu duen parte hartze programaren helburua.

Horretarako, herritar orori zuzendutako informazio saio orokorra egingo da irailaren 14an, eta Aholku Kontseiluaren bilera ere egingo da hilaren 21ean. Bestalde, udalak proposatzen duen aldaketari ekarpenak egiteko epea ere irekiko da irailaren 1etik 20ra, eta tarte horretan dokumentazioa ikusgai egongo da udalaren webgunean eta udaleko Hirigintza departamentuan, bertatik bertara kontsultatu nahi dutenentzat (Ikusi Parte Hartze Programa ondoko orrialdean).

Herritarren ekarpenak jasotzeko kanal horiez gain, hasierako onarpenaren aldia aldaketa puntualari alegazioak aurkezteko aukera ere izango dute nahi duten herritarrek, bide formalak erabilita eta udal erregistroan sarrera emanda.

Udalaren asmoa da iraileko osoko bilkuran egitea aldaketa puntualaren hasierako onarpena, eta Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta lurralde historikoko aldizkari nagusienetan horren berri eman ostean, hilabeteko epea irekiko da alegazioak aurkezteko.



Aridos Aloña SL enpresak bikoiztu egin nahi du harrobiaren azalera, Kortakogain aldera 300 metro lineal zablduz (40.000m²-ko azalera berria)

Gogoratu, Gomiztegiko harrobia ustiatzen duen *Aridos Aloña* SL enpresak harrobiaren gaur egungo azalera bikoiztu egin nahi duela, Kortakogain aldera 300 metro lineal luzatuz (40.000m²-ko azalera berria). Udalak egin nahi duen arau aldaketarekin erauzketa jarduera mugatu egiten da Babes Bereziko eta Nekazaritza eta Abelazkuntza eremu gisa kalifikatutako guneeetan, eta Arantzazu-Gomiztegiko harrobiaren ustiapena baimentzen da bakarrik eta eskusiboki gaur egun hartzen duen eremura. ■

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

PARTE HARTZE PROGRAMA

SAIO IREKIA HERRITARRENTZAT

IRAILAK 14,
KULTUR ETXEAN, 18:30

Udalak egin nahi duen
aldaketa puntualaren
nondik norakoak
azalduko dira. Aholku
Kontseiluko kideak ere
gonbidatuko dira, hilaren
21eko saioa baino lehen
bakoitzak bere taldean
azaldu ahal izan dezan.

AHOLKU KONTSEILUAREN BILERA


IRAILAK 21,
KULTUR ETXEAN, 18:30

Hiri Antolaketako Arauak
berritzeko eratu den herri
mailako Hirigintzako
Aholku Kontseiluaren
bilera egingo da, bere
iritzia eman dezan.

**EKARPENAK
EGITEKO EPEA**

IRAILAREN 1etik 20ra

Aldaketa puntualari
ekarpenak egiteko
aukera egongo da
emailaz (**partaidetza@
onati.eus**) edo udalaren
web orriko formulazioa
betez. Dokumentazioa
web orrian kontsultatu
ahal izango da, eta
bertatik bertara ikusteko
aukera ere egongo
da udaleko Hirigintza
departamentuan aurrez
hitzordua eskatuta.



Ingurumen-agiri estrategikoaren arabera, Gomiztegiko harrobiaren inguruan dauden babes bereziko eremuak adierazten dira goiko planoan



oñabike.com

Otadui 25, Oñati - Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK

» JONE ARRAZOLA ETA MIREN ARANGUREN

"Emakumeak ez dira jaiotzen zaintzen ikasita"

Udalak ematen duen Selma Huxley Barkham bekari esker 'Bizitzak erdigunean: Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista bat, 1950-2020' ikerketa lana argitaratu dute Jone Arrazola antropologo oñatiarrak eta Miren Aranguren soziologo iruñearrak. Emakumeei inposatzen zaien zaintzaren lan zama bidegabea dela iritzita, hori noiztik datorren eta zergatik aztertu nahi izan dute, belaunaldi ezberdinetako ama, neskame eta etxeko langileen lekukotzak eta bizi-esperientziak jasota. Mugimendu feministak egindako ekarpenak ere aztertu dituzte, eta baita gaur egungo etxeko langileek jasan behar dituzten lan baldintza gogorrak ere.

Zerk bultzatu zaituzte zaintza lanen inguruko ikerketa hau egitera?

Bi arrazoi nagusik eraman gaituzte Miren eta biok zaintzaileen historia eza-gutxera: alde batetik, gaur egun emakumeoi inposatzen zaigun zaintzaren lan zama bidegabea dela iritzita, hori noiztik datorkigun eta zergatik aztertu gura genuen.

Bestetik, besteak zaintzen bizitza eman duten emakume horiei guztiei aitortza egin nahi genien, baina historia osoa kontatuta, alde gazia zein gozoa; hau da, emakumeak eta zaintzaren arteko esentzializazio eta erroman-tizazioa iraunarazi barik.

Zer jaso duzue liburuan?

Liburuak 3 atal ditu: lehena, "Amatasuna: tradizioa eta askatasuna sokatiran": bertan kontatzen da oñatiko andreen genealogia bat, mugimendu feministaren sorrera eta errotzea nolakoak izan ziren eta amatasunaren bizi-penak, haurdunalditik hasi eta kontziliazioaren tranpetara. Bigarrena "Zaharrak berri: etxetik kanpoko zaintzaileen ibilbideak": neskametzatik etxeko langiletarako ibilbidea eta egungo zaintza krisiaren nondik norakoak jasotzen

dira. Azkena, Malen Ugartek idatzi du: kolaborazio berezia izan da, berak aurretik egindako lan bati tiraka ondutako memoria eta literatur lan bat.

XX. mende Erdiko etxekoandreak, gaur egun hazkuntza naturalaren hautua egin duten ama gazteak, garai batean neskametzan jardundakoak, eta gaur egun etxeko langile gisa diharduten emakumeak elkarriketatzeaz gain, teoria eta mugimendu feministak egindako ekarpenak ere aztertu dituzue. Ze ondorio atera duzue?

Lan honekin oñatiarrei erakutsi nahi diegu bertako emakumeak ez zirela jaio zaintzen ikasita, zaintzen ikasi egin behar izan dutela, garaian garaiko testuinguru politiko eta ekonomikoaren arabera, ezberdin.

Hiru emakume eta zaintzaile eredu identifikatu ditugu 1950etik gaur egun arte: 1950-60ko basa eta aingerua, eta, ondoren, 1970etik gaur egun arte nagusitu diren emakume langileak. Zentzu horretan, zaintzak antolatzeke era hautu politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala dela ikusarazi nahi dugu; alegia, egungo egoera

bidegabeak interes batzuei erantzuten diela eta, garrantzitsuena, gure esku dagoela hori aldatzea.

Gizarte industrialak bultzatu zuen sexuaren araberako lan banaketa eta etxekoandreaken eredu sustatu. Ondoren, frankismoaren amaiaerarekin batera, mugimendu feministak kolokan jarri zuen emakumearen eredu hori. Emakumearen lan merkatu-ratzeak eta independentzia ekonomikoak askatasuna eta aukera berdintasuna bermatuko zituela uste zen, baina ez zen horrela izan

1970eko hamarkadatik aurrera, geroz eta emakume gehiagok lortzen zuen ikasketak egin eta enpleguratzea. Politikoki garai indartsuak izan ziren, jendartearen eraldatzeko gogor borrokatu ziren emakumeak, eta, bai, independentzia ekonomikoaren garrantziaz ohartuta, Mugimendu Feministak hori ozen aldarrikatu zuen; hala, haurtzainak kontratatzen zizuten familia askok, haurrak zaintzeko eta adineko gehienak alabaren/errainaren etxe berean bizi ziren eta ez ziren horren luzaro bizi. Diotenez, Oñatin haurtzainak bilatzea



kosta egiten zen; noski, fabrika diru gehiago irabazten zenez, ahal zuenak hautu hori egiten zuten.

Orduan ere, familia pobretuetako alabak, etxekoandreak edo gazte ikasketa gabek ziren haurtzain aritzen zirenak. Gerora etorri ziren haurtzaindegia edo adinekoentzat Eguneko Zentroa.

Hazkuntza naturalaren aldeko hautua egin duten ama gazteen esperientziak ere jaso dituzue. Zer diote? Amatasunaren inguruan gezur ugari dago, mito gehiegi; liburuan hori desmuntatzen



saiatu gara. Ama izateko garaian, emakumeek bi egoera nagusi bizi dituzte: gehienak amatasun baimena agortuta enplegua itzultzen dira eta haurraren zaintza kolektibizatzen dute, haurtzaindegira eramanez edo amama edo aittaitarekin jareta. Gutxiengo batek, bestalde, ama eta haurraren arteko harremanari lehentasuna ematen dio, adibidez, edoskitze naturalarekin; eta, horrek dakar, besteak beste, enplegua aldi batez uztea. Eman lezake azken horiek lehengo etxekoandreen bizimodu berdina errepikatzen dutela, alegia, jendarte

» Zaintzak antolatzeke era hautu politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala dela ikusarazi nahi dugu; alegia, egungo egoera bidegabeak interes batzuei erantzuten diela eta, garrantzitsuena, gure esku dagoela hori aldatzea

» Barruko erregimenean lan egiten duten langileen egoera eskandalagarria da. Onartezina izan beharko luke, baina onartu egiten dugu. Genero, klase eta arraza zapalkuntza gurutzatzen dira

aurreratu honetan "atzera" egiten dutela, eta horregatik ez ulertuak, epaituak, gutxietsiak sentitzen dira sarritan. Eurek aldarrikatzen dute haurraren beharrak kontutan izatea, baina diotenez horrek amarentzat askatasun galera nabarmena suposatzen du haurraren lehen urteetan.

Liburuaren bigarren zatian etxetik kanporako zaintza

Liburua eta bi bideo



Herriko liburutendetan dago salgai Jone Arrazolak eta Miren Arangurenegandak egindako lana jasotzen duen liburua. Laster udalaren webgunetik deskargatzeko aukera ere egongo da. Liburuaz gain, bi bideo ere sortu dituzte (Oñatiko udalaren youtube kanalean daude ikusgai), ikerketa lanean eta herritarrekin izandako tailerretan jasotakoaren laburpen dokumentala

lanak aztertu dituzue: lehengo neskameak (kriadak) eta gaur egungo etxeko langileak. Ba al dago loturarik bien artean?

Neskameen ondorengoak dira gaur egungo etxeko langileak, emakume ezberdinak izan arren, euren bizi eta lan baldintzak ez dira asko aldatu: lehen, neskameak izaten zituzten ekonomikoki ahal zuten familiek, haurrak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Neska horiek familia pobretuetako alabak izaten ziren, asko baserrikoak eta ia-ia tripatruke egoten ziren. Egungo etxeko langileak adinekoak zaintzeko kontratatzen dituzte orduka edo "barruko erregimenean" (24 orduz, 7 egunez). Azken kasu horiek neskametzarekin parekatu daitezke.

Gaur egun etxeko langileek

jasan behar dituzten lan eta bizi baldintza gogorrak ere aztertu dituzue.

Orokorrean, etxeko langileen lanak aitortza sozial eta ekonomiko eskasa du. Emakume izate hutsagatik egiten jakin beharko genituzkeen lanak direla uste da: garbitu, zaindu, atseginak izan, kozinatu, osatu...

Barruko erregimenean lan egiten duten langileen egoera eskandalagarria da: soldata regateatzea, disponibilitate osoa, paperekin txantaiak, sexu abusuak eta abar luze bat. Neoesklabismoa da: onartezina izan beharko luke baina onartu egiten dugu, arrazializatutako emakumeak direlako, euren lana bertakoentzat nahi ez dugu-lako eta eurak gabe salduta gaudelako. Genero, klase eta arraza zapalkuntza gurutzatzen dira. ■

'ZAINZTA KRISIA' ETA 'ARDURA SOZIALA'

'Zaintza krisia' bizi dugula diote Arrazolak eta Arangurenegandak. Gizartea zahartuz doan neurrian, 'Z' gero eta beharrezkoagoak izango dira zaintza lanak gure jendartean, baina, hala ere, 'ardura sozial' falta somatzen dute bai erakunde publikoen aldetik eta baita gizonezkoen artean ere. Arazo horri aurre egiteko gako eta erronka nagusiak zein diren galdetu diegu.

"Zaintza barik ez dago bizitzarik, ez dago ekonomiarik, kulturarik, kirolirik... Baina zeri ematen diogu balioa? Harrigarria da oraindik ere Zaintza Sistemarik ez izatea, hezkuntza eta osasunaren pareko arreta instituzional bat.

Guk 3 urrats azpimarratu ditugu zaintza lanen antolaketa aldatzeko eta emakumeen bizi kalitatea hobetzeko: 1. Zaintza lanak politikoki eta sozialki aitortzea; 2. Zaintza lanak birbanatzea; 3. Zaintzaileen bizi eta lan baldintzak duintzea.

» **SDENKA HUARANCA (ZAINZAILA) ETA SUSANA ALTUNA (ELKARZABAL)**

"Etxeko langileen lan baldintzak aldatzeko ordua da. Oñatiko herriak ezin du beste aldera begiratu"

Jone Arrazolak eta Miren Arangurenak burutu duten **'Bizitzak erdigunean. Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista, 1950-2020'** ikerketa lanaren harira, Oñatin gaur egun zaintzaile lanetan diharduten pertsonen egoera aztertzeko lan saioa egin zen ekainaren 22an. Hogei bat emakume elkartu ziren bertan, eta beraien artean elkartzeko gogoia eta beharra azpimarratu zuten, elkarri entzuteko eta beraien lana duintzeko urratsak ematen hasteko. Sdenka Huaranca, etxeko langileen ordezkaria, eta hauei laguntzen ari den Elkarzabal elkartearen Susana Altunarekin berba egin dugu zaintzaileek bizi duten egoeraz.



Nola baloratu duzue etxeko langileen egoera aztertzeko egin den lan saioa?

Sdenka: Oso interesgarria izan da Oñati mailan zaintza lanek izan duten eboluzioaren analisia entzutea, eta gaur egungo etxeko langileen egoeraren azterketa egitea. Abiapuntu bat da etxeko langileak batu, saretu eta gure arazoei irtenbidea ematen hasteko.

Gure kolektiboak bizi duen egoera gordina agerian jarri behar dugu, eta jendea irusarazi zaintza lanek ekonomian duten pisua eta garrantzia. Emakume etorkinak gara, neurri handi batean, zaintza sistemari eutsi diogunak, baldintza oso gogorretan, eta uste dugu lan merkatuaren baldintzak (soldatak, lan orduak...) aldatzeko ordua dela.

'Lan esplotazioa' bezalako hitzak ere entzun dira.

Sdenka: Emakume migratzaileak behar handiekin iristen dira hona. Ahal dutenari helden diote eta interna edo barneko langile bezala amaitzen dute askok: egunean 24 orduko lana, hilean jai egun bakarra kasu askotan, soldata baxuak... Jendeak erraz ulertzen da, gure lan-ordu batek ez du zurito baterako ematen.

Denbora librerik gabe bizi diren emakumeak dira, eta gaixorik amaitzen dute. Ez duzu uste esplotazioa denik? Zoritxarrez, gainera, gizartean normalizatzen ari den errealitate bat da, eta hori ez da bidezkoa.

Susana: Ñabardura bat egin nahi nuke. Badakit jende askori gogorra gertatuko zaiola 'lan esplotazioa'-rena entzutea. Nik uste dut, Oñati mailan, familia asko saiatzeko direla zaintzaileak ondo atenditzen eta ordaintzen. Uler-

tzen dut diru asko ordaintzen dela, eta alargun asko daude, pentsio baxuekin, ezin dutenak langile bat kontratatu, eta bere seme-alabek egin behar dute kargu. Baina ezin dugu ahaztu zaintzaile asko daudela eguneko 24 orduak lanean, gure senideak zaintzen, ez dutela atsedenik hartzen, ez goizez, ez gauez, eta hori balioan jarri behar da. Diru asko ordaintzen da, bai, baina ez da garestia.

Zein mezu helarazi nahiko zenieke herritarrei?

Sdenka: Ozen eta garbi esan nahi dut, gu, zaintza lanetan dihardugun pertsona migrante eta arrazializatuak, XXI. gizaldiko ahaztuak eta baztertuak garela. Zuek lan-eskubide batzuen alde borrokatzen duzue, bizimodu duin bat edukitzeko, eta hori ondo dago, baina esaten dudana da, eskubideak beti

berdinentzat direla, eta gu hemen gaudela langabezia eskubiderik gabe, jubilaziorik gabe....

Susana: Etxeko langileen kontratuak (egiten direnean) *Sistema Especial de Empleadas del Hogar* erregimenaren barruan egiten dira, erregimen orokorretik kanpo, kotizazio maila askoz baxuagoarekin. Hori da legeak ematen duen aukera bakarra, baina uste dut garbi dagoela emakume hauek menpekotasunen bat duten pertsonen zaintzaileak direla eta, beraz, etxeko lanaren zakutik atera beharko lirarteke eta hitzarmen propioa eduki. Gehienak kualifikatuta daude arreta sozio-sanitarioa emateko.

Sdenka: Formazioa da gure eskubideak zapaltzeko beste modu bat. Gutako gehienok formazio sozio-sanitarioa lor-

tzeko sakrifizioa egiten dugu, baina, gero, gure enplegatzaileak dira horri etekina ateratzen diotenak, erakundearen dirulaguntza jasotzen dutelako, eta gu, aldiz, etxeko langile bezala kontratatzen jarraitzen dute.

Etxeko langile askok urteak daramatzate lanean kontratu barik. Adinean aurrera doaz eta ez daukate pentsio bat jasotzeko eskubiderik, eta, gainera, osasun arazoak dituzte, fisikoak eta psikologikoak, egindako lanaren ondorioz. Benetako dramak daude beraien bizitza ematen ari diren emakume hauen artean.

Baina zer gertatzen da? Estatuak mendean hartuta gauzkala, Atzerriartasun Legearen bitartez. Estatuak ezin die erantzunik eman behar horiei (kontziliazioa, zaintzak...) eta gu geu gara soluzioa ematen ari garenak, eskulan merke batekin. Nola deitzen zaio horri? Horixe da aldatu nahi duguna.

Oñatin bertan ere diskurtso feminista asko entzuten dut, baina etxean bertan aplikatzen hasi behar dugu. Badakit deserosoa dela hori entzutea, baina hala da. Gure sektorea bizitzak zaintzeaz arduratzen ari da, baina, hala ere, ez dauka inolako balorazio sozialik. Ez-ikusiarrena egiten dute bai agintariak eta baita herritarrek ere. Beraz, horixe galdetzen diot jendeari, ea prest al dagoen egoera hori aldatzen hasteko.

Udalari ere eskatzen diozue esku hartu dezan. Zer egin dezake udalak?

Sdenka: Nik uste dut udalak kontrol lana egin beharko lukeela, abusuzko kontratuak ekiditeko. Ezin dugu dena esku pribatueta utzi.

Azken batean, duintasuna baino ez dugu eskatzen; zuek daukazuen berbera. Alde biok dugu elkarren beharra, eta uste dut ordua dela kontratu sozial bat egiteko Udalaren



Etxeko zaintzaileen egoera aztertzeko egindako lan saioa



Sdenka Huaranca

Emakume migratzaileok gara zaintza sistemari eusten ari garenak, lan baldintza oso gogorretan, eta hori aldatzeko ordua da

Alde biok dugu elkarren beharra, eta uste dut kontratu sozial bat egiteko ordua dela, Udalaren bitartekaritzarekin, abusuak ekiditeko

Diskurtso feminista asko entzuten ditut Oñatin, baina etxean bertan aplikatzen hasi behar dugu

bitartekaritzarekin. Udaletxe aurrerakoia daukagu, ezker-tiarra, eta uste dut momentua dela gauzak aldatzeko. Oñatiko herritarren inplikazioa lortzeko garaia da.

Susana: Garbi dago udalak ez daukala eskuduntzarik arlo horretan, baina egia da



Susana Altuna

Diru asko ordaintzen da, bai, baina kontuan hartuta gure senideak eguneko 24 ordutan atendituta daudela, etxeko langileen zerbitzua ez da garestia

Dagoeneko txat bat sortu dugu, ehun bat etxeko langilerekin, lan eskaintzak partekatu eta sortzen diren zalantzak eta arazoak bideratzen saiatzeko

Kooperatiba moduko bat sortzea da asmoa, eta zaintzaileak eurak izatea bertako protagonistak

laguntzeko modu ezberdinak daudela. Pertsona hauek izaten duten arazo handienetako bat erroldarena da (zerbitzu eta laguntza publikoak eskuratu ahal izateko, egoera erregularizatzeko...). Ildo horretan udalak hartu ditu neurriak eta, hala, Oñatin bizi dela demostratzen duen pertsona orori

errolda agiria ematen zaio.

Bestalde, udal mailako Berdintasun Kontseiluaren bitartez emakume migratzaileen egoerari buruzko diagnostikoa egin berri da. Emakumearen Etxea izango dena ere definitzen ari da, eta hau ere lagungarria izango da emakume etorkinak elkartzeko eta beraien eskubideen alde urratsak emateko.

Etxebizitza ere arazo handia izaten da etorkinentzat, askotan, etorkin izate hutsagatik itxi egiten zaizkielako ateak, eta hor ere badago zer eginga. Bestalde, Bidebarri eta Elkarzabalekin batera, Lan Okupazionalako programa bat sustatzen ari da Udala, etorkinei zuzenduta.

Sdenka: Oso inportantea eta eskertzekoa da Berdintasun Kontseiluan emakume migratzaileok ere egotea. Gure egoera ikusarazteaz gain, ekarpen interesgarriak ere egin ditzakegu, hemengo feministekin batera gizarte hau eraldatzeko.

Etxeko langileen elkarte bat sortzeko asmoa eta beharra adierazi dute hemen bildu direnek. Zertarako? Nola?

Susana: Dagoeneko txat bat sortu dugu, ia 100 pertsona biltzen dituen, oso aktiboa. Bertan ipintzen ditugu lan eskaintzak eta sortzen diren arazoak konpontzen edo bideratzen saiatzen gara.

Gaur egun Elkarzabal elkartearen ari gara lan hori egiten, baina, asmoa da kooperatiba antzeko egitura horizontal bat sortzea, eta beraiek izatea protagonistak. Elkarrekin babesa emango lieke etxeko langileei, ongi-zate mailan dituzten beharrei erantzunez, eta aholkularitza eskainiz gai juridiko-administratiboetan.

Sdenka: Amaitzeko, esan nahi 'emakume' hitzak 'duintasuna' esan nahi duela hizkuntza guztietan. ■



"Aurrera egitekotan, artegi berria behar genuen"

MAIALEN MADINAK ETA MIKEL ARREGIK ARTEGIA ERAIKI DUTE GESALTZAN

Ardi eta behientzako ukuiluaz gain, jezteko gela eta gaztandegia egokitu dituzte bertan

Artzaintzatik bizitzeko apustua egiten duten gazte bakan horietakoak dira Maialen Madina eta Mikel Arregi, azken hau lantegian ere badabilen arren. Duela hamar urte ikasi zuten ofizioa Gomiztegiko artzain eskolan, eta Azkarretako artaldearen errentan hartuta lehenengo urratsak eman ondoren, Mikelen familiako Gesaltza baserriko azientaren kargu egin ziren.

Baina Gesaltzako artegi zaharrak ez zituen ganadu ustiategi moderno bat aurrera ateratzeko baldintzak eskaintzen (leku gutxi, ardiak eskuz jetzi behar, gazta egiteko esnea etxera eraman behar...) eta hala ezingo zuten luza-roan jarraitu. Beraz, zirt edo



Mikel eta Maialen, Ekhi eta Irati txikiekin. Urtean 3.000 kilo inguru gazta egiten dituzte, ketuak eta ketu gabeak

zart egitea erabaki zuten iaz: edo artegi berria eraiki, horrek eskatzen duen inbertsioarekin, edo ardiak saldu eta beste lanen baten hasi.

Azken aukera hori ez zen beraiek nahi zutena, jakina, oso gustukoa dutelako artzain bizimodua, eta, zorionez, bidean aurkitutako traba eta disgustuak gaindituta, artegi berria eraikitzeko baimena lortu zuten, eta ilusioz ikusten dute orain etorkizuna, Ekhi eta Irati txikiak alboan dituztela.

EROSOTASUNA

550m² inguruko azalera du Gesaltza artegi berriak, eta gune ezberdinak ditu bere baitan: ardi, behi nahiz txahalentzako lekuak, jezteko gela,



biltegia eta gaztandegia. Puri-nak batzeko parrilla eta hobia ere egokitu dute, bertatik xurgatu eta zelaian zabaltzeko ongari gisa. "Lekuan eta erosotasunean irabazi dugu batez ere", dio Maialenek; "dena bertan edukitzea eta jezte prozesua mekanizatu izana abantaila handia da".

Apustua inportantea da, eta egin behar izan duten inbertsioa ere tamainakoa, baina azken urteetan aurretutakoarekin eta familiengandik jasotako laguntzari esker aurrera irteeta espero dute. Erakunde publikoen dirulaguntzak ere jasoko dituzte. "Foru Aldundiak dirulaguntza polita ematen du, baina geuk aurrerratu behar dugu dirua, eta ondoren iristen da laguntza. Oñatiko udalak ere eman digu 4.000 euroko laguntza, ustategien modernizaziorako daukan dirulaguntza lerrotik" azaldu digu Maialenek.

'GESALTZA' GAZTA

Gazta salmenta da Gesaltzako artzain gazteen diru iturri nagusia. Urtean 3.000 kilo inguru egiten dituzte; ketuak, eta ketu gabeak, erdi eta erdi,



Goian, ardi eta behientzako ukuilu berria, eta gaztandegia Ezkerrean, Ekhi txikia gustura bildots artean.

GESALTZA TXAHAL OKELA

600gr (+/-) paketetan enbasatua

5kg 60€

Xerra extra

1. mailako xerra
2. mailako xerra

Txuleta
Sahieskia
Okela pikatua
Zankarroia
Gisatzeko okela

Etxera eramango dizugu
Egin zure eskaria
Maialen: 670431741

Txahal okela lotetan ere saltzen dute Gesaltzan

gutxi gora behera. "Gaztak ketzeko prozesua Mallako etxabolan egiten dugu, eta oso harrera ona dute, baita ketu gabeek ere", dio Maialenek. "Egia esan, pozik gaude; bezeria finko samarra dauka-gulako, jendeak estimatzen

dituelako gure gaztak, eta egindako guztiak saltzen ditugulako".

Bere egunean salmenta zuzenaren aldeko apustua egin zuten, eta oso garbi dute hori dela bidea. Larunbateroko plazako azokan, Aran-

tzazun eta Gesaltzan bertan saltzen dute gazta.

Gaztaz gain, ardi esnea, etxeko arrautza freskoak eta bildotsak ere saltzen dituzte. "Gaur egun oso jende gutxi eskatzen du bildotsa, eta gehienak handizkako edo maioristei saltzen dizkiegu.

TXAHAL-OKELA

Aurten, proba modura, txahal okelarekin egindako loteak ere saldu dituzte. "Sare sozia-len bidez eta lagun artean zabaltu genuen eskaintza, eta izena eman zuen jendearekin bi txahalen okela saldu dugu paketetan. Pozik gaude eta bide horretan jarraitzeko asmoa dugu, jendea apuntatzen bada".

Hamar urte igaro dira artzantza ogibide bihurtzea erabaki zutenetik, eta ez dute damurik. "Lan asko dauka, batez ere neguan, ardiak, behiak eta behorrek behean ditugunean, baina gustuko baduzu, merezi du. Gure kasuan, gainera, ez gara zerotik hasi; artaldeak bage-neukan, terrenoak ere bai, eta familiakoen laguntza ere izan dugu, eta modu horretan errazagoa da aurrera irteeta. ■

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte

 **MAPFRE**
OÑATI

Matrikula aldia zabalik

UDAL EUSKALTEGIAN

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze mailak, titulu ofizialak (HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. mailak) lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak, etorkinei zuzendutako ikastaroak, Oñatiko euskara lantzekoak... Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza zabala. Izena ematen duten ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren iritzia bildu ditugu.



**AQUELINE YOLANDA
GONZALEZ**

"Euskara oso garrantzitsua da Euskal Herrian bizitzeko"

Mexikarra sortzez, iazko urrian iritsi zen Oñatira, eta astebetera eman zuen izena udal euskaltegian. Ikasturte osoa burutu du eta baita A1 maila eskuratu ere. "Uste dut euskara oso garrantzitsua dela Euskal Herrian bizitzeko, lagun berriak egiteko, bertakotzeko. Oso gustura etortzen naiz euskaltegia; irakasleak oso onak dira, eta ikaskideekin ere oso ondo moldatu naiz. Esperientzia oso polita izaten ari da. Nire senargaia Oñatikoa da, eta bere familiak eta lagunak ere asko laguntzen didate euskara ikasten. Denborarekin, C1 maila (lehengo EGA) lortzea gustatuko litzaidake, lanpostu egonkor bat eskuratu ahal izateko".



MARIELA NINA COLLARANI

"Seme txikiari lagundu nahi diot euskara ikasten"

Boliviarra sortzez, 15 urte daramatza Oñatin. Tabernako lanari esker oinarritzko ulermen maila bat lortu du eta, aurten, ERTE egoeran zegoela baliatuz, euskaltegian hastea erabaki du. "Alaba nagusiak ondo ikasi du euskaraz, baina seme txikia lotsatia da, kosta egiten zaio, eta hari lagundu nahi diot, neuk ere euskara pittin bat ikasita. Oso gustura nabil euskaltegian; jende asko ezagutu dut, eta esperientzia polita izan da. konturatzen naiz orain gehiago ulertzen dudala, baina berba egitea kosta egiten zait. Euskara ikasten jarraitu nahi nuke, Euskal Herrian bizitzea asko gustatzen zaidalako, eta bertako hizkuntza delako".



ION PATXI DIAZ

"Berba egiteko gai izatea da nire helburua"

Hizkuntzetarako "txarra" dela aitortzen du, berdineuskararekin, eta berdinegelesarekin. Baina erretiroa hartu ondoren "azken ahalegina" egitea erabaki du, eta oso gustura ari da. "Gaztetan urte asko eman nituen euskaltegian, baina ez nintzen behar beste saiitzen eta, gainera, hizkuntzetarako txarra naiz. Ulertu, nahiko ondo ulertzen dut euskara, baina berba egitea oso zaila da niretzat. Orain jubilatuta nago eta denbora gehiago daukadanez, azken saiakera egitea erabaki dut, eta oso gustura nabil euskaltegian, bai irakaslearekin eta baita taldekideekin ere. Berba egiteko gai izatera iristea da nire helburua".

ANE MERTZERIA



• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



• Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
• Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



ROSA TOBAIAS

"Amorru handia ematen dit euskara ez jakiteak"

Extramaturakoa sortzez, 35 urte daramatza Oñatin, eta bertakotzat du bere burua, baina pena ematen dio euskara ez jakiteak; "hain polita da!". Amama izan berri da, eta ilobarekin euskaraz berba egitea du amets. "Ni Oñatira iritsi nintzenean ez zen hainbeste egiten euskaraz, baina orain dena da euskara, eta neuk ere egin nahi dut, bertakoa sentitzen naizelako. Nire adinarekin ez da erraza, baina, zorionez, urte hauetan guztietan hitz asko barneratuta ditut, eta gauza asko ulertzen ditut, baina berba egitea kostatzen zait. Hala ere, ilusio handia daukat ikasteko, eta ez dut etsiko".



IBAI UGARTE

"C1 titulua ateratzeko helburuarekin etorri naiz"

Helburu garbi batekin eman zuen izena Ibaik udal euskaltegian: C1 mailako titulua (lehengo EGA) eskuratzea, eta oso gustura dago emaitzarekin. "Iaz irakasle izateko masterra egin nuen, eta horretan aritzeko C1 titulua eskatzen dutenez, helburu horrekin egin dut ikasturte osoa euskaltegian. Batxilergoa amaitu nuenean ere aurkeztu nintzen neure kontutik EGA azterketara, askorik prestatu barik, eta ez nuen atera. Orain, aldiz, euskaltegian jaso dudak formazioa oso bideratuta egon da azterketara, eta oso gustura nago, helburua lortzen balio izan didalako".



LEIRE ELIZONDO

"Lanerako behar dudak euskara maila lortu nahi dut"

Langabezian zegoela ikusita, iazko irailean eman zuen izena euskaltegian, lanerako behar duen euskara maila eskuratzeko asmoz. "B2 titulua ateratzea da nire helburua, horixe eskatzen dutelako nire lan arloan. Aurten B1 maila lortu dut eta oso gustura nago euskaltegian izandako esperientziarekin. Ordutegia oso egokia zen niretako, goizez bi ordu, astelehenetik ostegunera, eta taldea ere oso ona izan da. Oso gustura etortzen nintzen. Ni euskaldun zaharra naiz, baina konturatu naiz idazterakoan akats asko egiten ditudala, baina ikasturte honetan asko ikasi dut, eta B2 maila lortu arte jarraitu nahi nuke".

EUSKARAZ
ZABALDUTAKO AUKERAK
DESCUBRE TODO LO QUE TE OFECE EL EUSKARA

UDAL EUSKALTEGIA
HADE

♦ MATRIKULA EPEA ZABALIK
Prose de inscripción abierta

MATRIKULA ZABALIK

irailaren 1etik 24ra

Oñatiko Udal Euskaltegia (Bidebarrieta, 18)
Bulego ordutegia: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Ohiko beka sistemaz gain, iraupen luzeko langabetuentzat dohainik (informatu euskaltegian).
Matrikulatzen diren ikasleen artean zozketa egingo da eta saridunari matrikularen kostua itzuliko zaio.

AZTERKETA OFIZIALAK
MAIATZEAN ETA IRAILEAN

MATRICULA ABIERTA

Del 1 al 24 de septiembre

Oñatiko Udal Euskaltegia (Bidebarrieta, 18)
Horario de oficina: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Además del sistema habitual de becas, parados de larga duración, gratis. Infórmate en el euskaltegi.

EXAMENES OFICIALES
EN MAYO Y SEPTIEMBRE

ROPEROA ASTELEHENETAN BAKARRIK IREKIKO DUTE

Iazko urrian eman zuen ultimatuma Kale Zaharreko elkartasun lokala koordinatzen duen Jose Antonio Urteagak: "uztailerako erreleborik azaltzen ez bada, lokala itxi egin beharko dugu, poliki poliki". Uztaila joan zen, erreleborik gabe, tamalez, eta horren aurrean, ordutegia murriztea erabaki dute bertako arduradunek. Aurrerantzean, astelehenetan soilik (10:30-12:00 eta 17:30-19:00) zabalduko dute lokala materiala jasotzeko, eta kanpoaldean (Kale Zaharra eta Lizaur arteko bidegurutzean) dagoen edukiontzi zuriak ere itxita jarraituko du. Halaxe jarraituko dute hurrengo hiru hilabeteetan, proba moduan.

GIZONEZKOENTZAKO ARROPA BEHAR DUTE

Arropak edo bestelako materiala (jostailuak, altzariak...) behar duten pertsonak atenditzen jarraituko dute, aurrez hitzordua eskatuta beti ere. Eta lokalean pilatuta dagoen materialari irteera eman ondoren, itxi egongo dute zerbitzua, erreleborik azaltzen ez bada.

Roperoak funtzio inportantea betetzen du, Oñatiko etxeetan soberan eta erabiltzeko moduan dagoen materiala jaso eta beharra dutenei banatzen die-lako, baina Urteagak 20 urte daramatza koordinatzaile lanetan, eta atsedena behar du. Laguntzeko prest dagoen jendea badago, baina koordinatzaile bat behar da proiektuak aurrera jarraitzeko.

Une honetan, gizonezkoentzako arropa eta oinetako beharrea dau-dela jakinarazi dute. Maletak, motxilak, baloiak eta ontziteria ere behar dituzte.



**Astelehenetan, 10:30-12:00 eta 17:30-19:00
soilik jasoko dute materiala. Lizaur kalean
dagoen edukiontzi zuriak itxita jarraituko du**

'Eta zu, TOKIKOZALEA al zara?'



**50€ko sei erosketa bono zozkatuko ditu TXANDAK
'Tokikozale' poltsarekin ateratako argazkiak
sare sozialetan zabaltzen dituztenen artean**

Tokian tokioa kontsumitzearen garrantzia azpimarratu eta TOKIKOZALEaren figura aldarrikatzeko sentsibilizazio kanpaina antolatu du TXANDA dendarien elkarteak. Erosketak bere herriko dendetan egiteko joera duena, 0 km.-ko gaiak kontsumitzen dituen, eta herriari bizitza ematen dion pertsona da TOKIKOZALEA. Uztailan kotoi organikoak poltsa banarekin saritu zituzten Oñatiko dendetan erosketak egin zituzten herritarrak, eta, orain, poltsa horiekin uda partean ateratako argazkiak sare sozialetan #Nitokikozalenaiz traola erabiliz zabaltzen dituzten herritarren artean 50€-ko sei sari zozkatuko dituzte irailaren 28an.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



Ingeleseko Akademia

Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiastrui Kortabarria



•NORENTZAKO:
Haurrentzat,
Gaztetxoentzat
eta Helduentzat

•NOIZ:
Goizean, eguerdian,
arratsaldean eta
iluntzean

•ZER:
Oinarrizko ezagutza,
trebakuntza,
laguntza eta
azterketa ofizialetarako
prestakuntza



Zatozte!

informazioa
jasotzera eta zuen
beharrak zeintzuk
diren azaltzera

www.4sgoiena.com

Arantzazuko Ama, 3 behea

943 53 36 57-685 986 003



ERREUSAK PROIEKTUA azken txanpan sartu da



INDUSTRIAURREKO GIZARTEAREN ERAKUSLE DIREN 1500 OBJEKTU KATALOGATU DITUZTE

Informazio hori guztia digitalizatu eta edonoren eskura egongo den datu-basea sortzea da orain helburua

Udalaren babesarekin, Gure Bazterrak taldeak abian jarritako egitasmoa da ERREUSAK. Gure herriko ondare etnografikoaren bilduma bateratua sortzea da helburua; industriaurreko bizimoduaren erakusle diren objektuak katalogatzea eta bizimodu haren lekuko izan ziren herritarren testigantzak jasotzea. Arantzazu Sagarzazu eta Klara Larruzea antropologoen gidaritzapean 48 lagunek jardun dute uztailan eta abuztuan herriko baserrietan landa-lana egiten. Informazio hori guztiori digitalizatu eta herritarren eskura jartzea da orain helburua. Sagarzazu eta Larruzeak egin digute orain artekoaren balantzea.

Uztailan eta abuztuan egin nahi zenuten landa-lana herriko baserrietan. Amaitu al duzue?

Hasierako planifikazioaren arabera irailaren 3an amaitzea aurreikusten genuen, baina astebete luzatuko da fase hau, falta zaizkigun azken baserriak eta tailer batzuk bisitatu ahal izateko.

Edozein modutan, lanik handiena eginda dago jada, eta, apur bat nekatuta, baina oso gustura gaude bi hilabete hauetan egindako lanarekin. Guretzat, koordinatzaile gisa, erronka polita izan da halako

lantaldea eta hainbeste baserri egoki antolatzea, eta oso gustura gaude bi hilabete hauetan egindako lanarekin.

80 bat baserri bisitatzea zen asmoa, bertan dagoen ondarea katalogatzeko. Lortu al duzue?

Datozen egunetan bisitatuko ditugunekin 75 bat baserri izango dira guztira. Beraz, oso gustura eta eskertuta gaude. Oro har, oso harrera ona izan dugu baserrietan; aittajun-amandriak pazientzia handiz egon dira gure galderei erantzuten, eta etxe

askotan familiako kide guztiak inplikatu dira. Plazer handia izan da horrela lana egitea.

Baserriak ez ezik, kaleko tailer batzuk ere (aroztegia, ardandegia...) bisitatu ditugu, eta perratzaileek erabiltzen zituzten erremintak ere katalogatuko ditugu datorren astean. Agustinoen komunitatean eta kale-baserriren batean ere izan gara.

Zenbat objektu katalogatu dituzue?

1.500etik gora. Beraz, alde horretatik ere erabat bete dira gure aurreikuspenak. Objektu

batzuk errepikatuta daude, baina halakoen atzean ere istorio, pasadizo edo bizipen ezberdinak egoten dira, eta denak dira interesgarriak.

Bereziki harritu zaituzten objekturik aurkitu al duzue?

Bai, asko. Aurrealdea zabalik duten *kuleroak*, adibidez, gona jaso eta zutik txiza egin ahal izateko; hilerokoaren-tzakako trpuak; txanponak gordeta eramateko *ixil-poltsak*; *ezkontzako arrak* (zilarrezko hamahiru txanpon); paretan sartutako *zeramika ontziak*...

Baserriko lanabesen artean ere tresna bitxi asko aurkitu ditugu: babia eta bestelako uztak jotzeko erabiltzen ziren *idaurrak*; *haziak ereiteko* (arekak zabaldu, arto edo baba aleak sartu eta zuloa estali) erabiltzen ziren tresnak; mota guztietako segak (angelu edo kurbadura ezberdinekoak, eskuin nahi ezkertientzat...). *Linugintzari* dagokionez, linu-haziak izan ezik, gainerako tresna guztiak agertu dira, eta argia egiteko erabili izan diren era guztietako tresnak ere bai: gari-lastoz egiten ziren *asau* edo lastargiak, *olio ontziak*, *argizaiolak*, *karburu*

ontziak, Kataberako minetan erabiltzen ziren *kinkeak*...

Objektuez gain, lekukoen testigantzak ere jaso dituzue. Aberasgarria izan al da?

Bai, noski, objektuak bezain garrantzitsuak edo gehiago dira hauek ezagutu eta erabili zituzten pertsonen testigantzak. Objektuak deskribatzeko aukera gero ere egongo da, baina, tamalez, hauek ezagutu eta erabili zituzten herritarrek gero eta gutxiago dira, eta, horregatik, garrantzitsua da lekukotasun horiek jasota geratzea. Zorionez, hainbat elkarrizketa grabatzeko aukera izan dugu, eta oso aberasgarria izan da ondare immaterial hori jasotzea.

Baserriz baserri objektuen katalogazio lana egiteko herritarren laguntza eskatu zenuten. Zer nolako erantzuna izan duzue?

Oso positiboa. Herritarrek ez ezik Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroatik ere batu zaigu jendea laguntzeko prest. Oso talde anitza osatu da, adin eta jakintza edo interes arlo ezberdinetako pertsonekin, eta bakoitzak bere arlotik egin dituen ekarpenak ere oso baliagarriak izan dira guretzat.

Jendearen jarrera oso ona izan da. Denek esan digute asko ikasi dutela baserrietan ikusi eta entzundakoarekin; jende askorengan gai hauekiko jakin mina eta interesa pizteko balio izan du, eta hori ere bazen proiektu honen helburuetako bat.

Gu oso pozik gaude, eta eskerrak eman nahi dizkiegu modu batera edo bestera lagundu diguten guztiei, ateak ireki dizkiguten baserritarrei, eta Udalari ere bai, noski, horrelako lan bat diruz lagundu izanagatik.

Eta hemendik aurrera zer?

Landa-lana amaitu ondoren bi hilabete hauetan jasotako informazio guztia osatu eta digitalizatzen hasiko gara. EHUko ikasle baten laguntza izango dugu zeregin horretan.

Oraingoz, datu-base bat osatu eta sarean edonoren eskura jartzea da Udalarekin dugun konpromisoa, baina hortik aurrera, aukera ugari zabaltzen dira. Material eta informazio asko jaso dugu (fitxak, elkarrizketak, bideo grabaketak...) eta abiapuntu interesgarria izan daiteke liburu bat idatzi, tesi bat egin edota dokumental bat grabatzeko. Erakusketa bat egitea ere ez dugu baztertzen. ■

'ULER-SAIOAK'

Euskarazko zero edo hasierako maila duten zortzi guraso behar ditu euskaltegiak, metodologia berri bat testatzeko

60 ESKOLA ORDUTAN EUSKARA ULERTZEKO GAITASUNA ESKURATZEA DA HELBURUA

Euskara 'azkarrago' ikasteko metodologia berri bat testatzeko ikerketa batean parte hartuko du Oñatiko udalak. Hori dela eta, zero edo hasierako maila duten guraso erdaldunen bila dabilta euskaltegian. Izan ere, Soziolinguistiko Klusterrak koordinatuta, ulermenean oinarritutako ikastaroa antolatuko du euskaltegiak, urritik otsailera bitartean, metodologia berri hori frogatzeko.

Ikastaroa euskara ulertzeko gaitasunaren garapenean zentratzen da. Euskara erraza eta sinplea erabiliko da, eta parte-hartzaileari ez zaio euskaraz egiteko eskatuko. Baimenduta egongo da gaztelania erabiltzea.

HELBURUA ETA BALDINTZAK

Ahalik eta eperik laburrenean euskara ulertzeko gaitasuna eskuratzea da helburua (60 ordutan, A2 mailari dagokion ulermena lortzea). Ikastaroa dohainik da, eta parte hartzeko eskaerak egiteko epea zabalik dago, **irailaren 9ra arte** udal euskaltegian, edo udaleko Euskara zerbitzuan (euskera@onati.eus). Eskola guztietara (urritik urtarrilera, astean lau ordu, bi egunetan) joateko konpromisoa hartzea eskatzen da. Gaztelaniaz jakitea beharrezkoa da.

Z E R B I T Z U A K

- *Fisioterapia orokorra.*
- *Fisioterapia uroginologikoa.*
- *Entrenamendu funtzionala eta pertsonalizatua.*
- *Erditzera gertakuntza eta erditze osteko egokitzapena.*
- **INDIBA.**



14 URTE, OÑATITARREI PUNTA PUNTA FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA ZERBITZUA ESKAINTZEN



**URRIAN TAILER
BEREZIAK**

San Ioren 54
T. 943 53 32 99 | M. 652 712 123
eratu@euskalnet.net

www.eratufisioterapia.com



Merezi duen moduko amaiera 50. URTEURRENARI

OÑATZ DANTZA TALDEAK IKUSKIZUNA ESKAINIKO DU IRAILAREN 25EAN

Musika Bandak, Ganbara Abesbatzak, Txinparta bertso eskolak, Lizargarate trikiti elkarteak eta Arrasateko dultzaineroek ere parte hartuko dute, txistulariekin batera.

Ilusio handiz ekin zion Oñatz dantza taldeak 50. urteurrena ospatzeari. 2020ko urtarilaren 18an herriko plazan egindako Soka Dantzarekin eman zitzaion hasiera urtemuga borobilari, baina, tamalez, handik gutxira zorigaiztoko koronabirusa iritsi zen eta, ondorioz, bertan behera utzi behar izan zituzten programatutako hainbat ekitaldi: herri bazkaria, txistularien alardea, dantzari ohien jaialdia...

Ezin izan da, zoritxarrez, behar bezala ospatu 50. urteurrena, baina, hala ere, merezi duen moduko amaiera eman nahi dio Oñatz dantza taldeak, eta ilusio handiz prestatzen ari den ikuskizuna eskainiko du irailaren 25ean. Euskal Herriko herrialde ezberdinetako dantzen erakustaldia egingo dute Oñatz dantza taldeko kideek. Beraiek izango dira protagonista nagusiak, baina ez bakarrik,

herriko beste talde batzuk ere gonbidatu baitituzte jaialdi berezi honetan parte hartzera. Hala, dantzetako batzuei lagunduz Ganbara Abesbatzeko ahots ederrak eta musika bandaren doinuak entzuteko aukera izango dugu, txistu, dultzaina eta trikitiarekin batera. Bertso eskolako kideek ere beraien aletxo ipiniko dute. Jaialdi berezi eta ederra izango da kiroldegiko kantxan irailaren 25ean (19:30).

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



Gora Oñatz!

>> *Goruetan jarraitu beharra dago*



Oñatz
dantza taldea

Azken-aurrena hobe da azkena baino. Galdetu, bestela, gurasoak azkena izango dela agintzen dion haur jostalariari. Bat gehiago eskatuko dio umeak, bai ala bai, nahiz eta jakin horrek ere ez duela asebeteko. Horrela gertatu izan da, urtez urte, taldeko hurrek izandako haurren egun edo dantzari txiki egunetan eta ikasturte amaieretako irteeretan.

Azken-aurrekoa dela dakizun momentua da zirraragarria, nolabait esateagatik. Gaztaroan jabetzen hasten zara nolakotasunaz. Nondik begiratu da kontua: batzuetan gustuko duzu; beste batzuetan, berriz, ez. Dantzan gustura dabilenak, esaterako, ez du denbora gelditu gura baizik. Izan bedi betiko azken-bigarren zortzikoa.

Azkenekoz egiten da, baina, dantza, lehenago edo beranduago, haurren egun edo dantzari txiki egunean. Hor da talde nagusira pasatzeko momentua. Garai horretan ematen diote azkena hainbatek beren taldeko ibilbideari. Zorionez, baina, hainbat eta hainbat dira aurrera egiten dutenak: urrats berriak dantzan, harremanak biderkatu, herriak ezagutu eta abar.

Azkena jo arte ibili behar izaten da talde nagusian ekinean. Hala ibili dira Euskadi etorbideko lokal bat lortu zutenak, Sancti Spiritus unibertsitatetik Zahorreko etxe zaharrera iritsi zirenak, eta Urgain eskolako sotoa utzi eta Eltzia joan direnak.

Zenbat dantza eta kontu bien bitartean. Baita bidaia bereziak ere: Austria, Kroazia, Idaho, Suitza eta Poloniara egindakoak, besteak beste.

Azken-hirugarrena izan dadin beti bidaia bat, goruetan jarraitu beharra dago. Badago non kardatu artilea, zorionez, eta goruari eragiteko taldea ere bada. Horretan jarraitu beharra dago azken beltzik iritsi ez dakigun. Inork ez du gure partez ezer egingo. Baina bada inor inoren partez ari denik. Inor bada taldeak ardura dionik. Inor horiei guztiei eskerrak eman gura dizkizuegu. Izan agerian ari denari, izan gerizpean ari denari. Soka ere aurreko eskuak eta azken eskuak egiten dute dantzan, baina beste guztiak barik ez dago sokarik.

Azkena emango diogu, San Migel bezperetan, halabeharrez luzatutako 50. urteurren dantzuari. Zatozte gurekin bat egitera ospakizunaren jai erraldoi honetan, azken baina ez hutsen izango da-eta.

Iñigo Murgiondo Agirre / Oñatz dantza taldeko komunikazio taldea

10€
IRAILAREN 13AN IPINIKO
DIRA SARRERAK SALGAI
UDALAREN WEBGUNEAN,
ETA TXOKOLATEIXAN



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

PAISAJIA ALDATUAZ ALA ASPALDITXOTIK ALDATUTA?



Gauza jakina da industrializazioak zelako aldaketak eragin zittuan baserri munduan fan zan gizaldiko hirurogeiko hamarkadatik aurrera. Orduan, herriko baserri gehixenak hustuaz fan ziran, batzuk ziharo, *txorietxe* geratuta, eta beste gehixenak fabrikako jornalaren lagungarri moduan itzitta; esan gura da, irabazpide nagusixa fabrikatik etorrela, eta baserrixa, ba, *etxerako lain* egittiarekin konformaitten zala. Bertako lanak, normalian, andra-gizonaren artian egiten ziran, senarra lan ordutik kanpo, eta etxeoandria betik bertan zalarik.

Bizimodu horrek holaxe iraun eben hamarkada batzuetan, baiña, errelebua etorri zanian, hurrengo belaunaldixak gutxiago jarraitu otsan bide horri eta hainbat terreno piñuz jantzi eta itzi egin izan ziran, jarete prozesua azkartuaz. Hirugarren belaunaldixa etorri danian, batzuk pentsau daue



Roberto Altuna

merezi dauela arbasuen bizilekura bueltaittia eta han bizi izaten jartia; eta beste batzuk, berriz, hoba dala dana saltzeia eta partiziñuak egittia haserriak eta liskarrak ebitaittiarren. Ondorixoz, asko ezpada be, jente barrixa sartu da paraje horreittan, eta horreittako asko hemengo baserri-mundua liburuetan bakarrik ikusittakuak dira, kalekumiak esaten dana.

Jente barri horrek danak euren baserri ingurua sasiz eta narraz beteta topau dauenian, gogor lan egiñaz garbittu edo urtenbide bat billatu biharrian egon da. Horretarako, asto, bihor edo ardi batzuk jarritta, alegia, lan asko emun barik terrenua garbittuko osten animalixa batzuk ifiñita, arazuari konponbide bat emutia pentsau daue.

Ardi batzuk jarrittako batek esaten nontan lehenguan ardixak '*eskilaitten*' ebiltzela egun horretan, ardixak terrenua garbiketan lan haundixa egitten daueilla, bestela '*desbrozadoriagaz*' ibilli bihar izaten dirala '*sasixak kentzen*', eta lan haundixa dala hori etxeo sail danetan egitteko.

Bizimodu barrixak prisía eta zalapartia ekarri dittu

beste gauza askoren artian: orain baserrira lanroberrian edo auto banatan faten da jentia fabrikara legetxe, eta ez oiñez lehenagoko moduan, astua lagun; sasixak desbrozadoriagaz kentzen dira, eta ez sega motzagaz edo marrajuagaz (edo txarrantxiagaz) jota; ittoian eztau behirik esnia jaisteko, eta ogixa kaletik ekarten da etxeo labesuan egin biharrian.

Horrek guztiak, transmisioña etetiarekin batera, hizkuntziaren aldaketia eta galeria ekarri dau zentzu askotan, euskeria aldatu da, baserrikoa eta kalekoa bardindduaz, edota kaletartuaz. Gure gurasuen berbetia ahaztu samartuta dakogu, eta, eurak esaten euein fomaire erreparau barik, gaurko bizimoduko lanak edo tresnak izendau edo moldau ezindda ibiltten gara.

Bizitzako legia da zaharrak fatia eta barrixak etortia, hau da, paisajiak, jentia, hizkuntzak, ohitturak, usarixuak eta abar aldaketia eten barik. Bizimodu honek doian abixariarekin zer ikusiko ete dogu datozen urtietan? Zer aldetara egingo ete dau balantziak aurrian dittugun erronka guztiak kontuan hartuta? ■



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

koma
language
services
+
ROCKBOTIC

TIME TO *Learn* ROBOTICS

Robotika ingelesez

Rockbotic metodoa
Hezkuntza Robotikako liderra -
8.000 ikasle baino gehiago
6 urtetik aurrera



Koma Oñati
SanLorentzo4,behea
94 371 82 08 - 672 49 27 52

www.komalingua.com
mnuara@komalingua.com

KomaArrasate
Iturriotz35,behea
94 371 26 31 - 610 77 78 02

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!

Presentzial eta online kurtsoak,
Cambridge azterketarako prestaketa,
Linguaskill, Robotika, Tailerrak, E-learning,
Critical Thinking...

16 HIZKUNTZETATIK
GORA



3 URTETIK
AURRERA!

telc
LANGUAGE TESTS

TRINITY
COLLEGE LONDON
Registered Examination Centre
For English for

Cambridge
English Qualifications
Linguaskill
from Cambridge

Koma Oñati
SanLorentzo 4, behea
94 371 82 08 - 672 49 27 52


www.komalingua.com
mnuara@komalingua.com

KomaArrasate
Iturriotz 35, behea
94 371 26 31 - 610 77 78 02



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Aitzabalen Nafarroako ikurriña!

Aitor Urizar (Oñatiko ERNAI!)

500 urte bete dira aurtan Nafarroak askatasuna galdu zuenetik Noain-en. Gaur egun askatasun honen alde egiten jarraitzearen garrantzia azpimarratzen dugu. Independentzia behar dugu!

Antolatu eta borrokatu dezagun herri honen askatasuna lortu arte! Batu borrokara!

Berriz altxa Nafarroa!

BIRAOAK

Bittor Madina

Kultura eta hizkuntza guztietan norberaren barruko haserrearekin, mina kontrolatzeko eta adierazteko erabiltzen ditugu biraoak, maldizioak, juramentuak. XVIII. mendean mitoa zabaldu zuten Euskerak ez zuela maldiziorik eta esatekotan erderazkoak erabiltzen zituztela.

Aspaldian sortutako "Aitorren Hizkuntz zaharra" bertso sorta ezaguna kantatu izan dugu askotan. Zazpi bertsoetan, geure hizkuntza goraiatzeko dugu: "..... **usain goxodun hizkuntz, txukun ta garbia, biraorikan ez duen hizketa maitia**". Gainera, harro sentitu gara.

Egia da dakigun eta erabiltzen ditugun apurak erderazkoak direla. Gaztelerara jotzeko ohitura sendoa izan dugu. Gainera, oso matxistak, sexistak eta mugatuak dira. "Kabron", "Hijo puta", "Vete a la puta mierda", "A tomar por culo", "Hostia puta" eta antzerako beste batzuk.

OOOOo!! euskera doatsua

OOOOo !! euskera garbia

Ai j, biraorik ez duzun hizkuntza,

goragalea, botagurea ematen didazu

izan-eta ez zarelako

ez izan-ta hala zerala esaten dutelako.

Biraorikan ez bazendu

Zer triste izango zinaken

EUSKERA

Hitz hauek idatzi zituen Joxean Artze poetak 1969. urtean.

Oraintxe urte batzuk, Patxi Salaberriak eta Juan Jose Zubirik 'Biraoak' liburua argitaratu zuten. Bertan, liburu potoloan, diote, gure hizkuntzan hitz eta esaldi ugari badirela iraintzeko, gaitzesteko, izorratzeko, hortzak erakusteko eta harridura adierazteko. Egoera askotarako sortuak izan dira urteetan. Jakina da birao bakoitza arintasun eta gogortasun entonazioaren eta indarraren menpe daudela. Batzuk ahoz entzunda ditugu; beste asko geure belarrietara iritsi ez direnak. Liburua aurrean edukitzea eta orriz-orri irakurtzea plazerra da. Hona dakartzkizuet bertako perla batzuk:

Kaka hiretzat, Zozo tonto, Zerri zar zikin, Akabatuko al haiz, Nazkante hori, Gaztaundi, Kabuensos, Ttuttulu (motza, inozoa), Joan hadi pikutara, Zerri alua, Hoa (Joan hadi) zakurraren ipurtzulora, Artaburu halakuoi, Hi triskilinpoto, Zapelontzio, txepelok, Ñaño hori, Ittoko ahal haiz heure diruarekin, Kaka zaharra, Zapo hori, Tontoharro, Kaxkal huts hori, Zer Kristo egin dok, Astaputz, Ahoustel, Madarikatuoi



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Realaren lehen taldearekin, Azkoagainen

HILEKO ARGAZKIA 📷

Egun berezia bizi izan zuen abuztuaren 28an Elene Guridi futbolari oñatiarrak. E.H. Kopako 3/4 posturako partida jokatzeko aukera izan baitzuen Azkoagainen, Realeko lehen taldearekin. 2-1eko emaitzarekin nagusitu ziren Eibarren aurkako lehia.



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

>> Oñati gestio heziketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

MATRIKULA ZABALIK

Eskaintza akademikoa	
OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
•Administrazioa eta Finantzak	•Mekatronika Industrialia
•Zuzendaritza Idazkaritza	•Automatizazioa eta Robotika Industrialia
•Salmenta Kudeaketa	•Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa
	•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
	•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

www.mondragon.edu/ogh
943 71 80 09
rigarza@mondragon.edu

www.mondragon.edu/gmhz
664 298 704 • 664 298 683
onarpena.lhm@mondragon.edu






OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

*Gure ekintzen berri emango duen atala...***HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA!**

Aurtengoa ere urte eta uda zaila izan bada ere, oztopoak oztopo uztailean zehar, azkenengo urtetan bezala, haur eta gaztetxoentzako hainbat ekintza burutu ahal izan ditugu. Hala nola, Udaleku irekiak, Ludoteka, Txipistin eta Gaztelekuko hainbat irteera. Ahal izan dugun neurrian topera disfrutatu dugu eta horren erakusle dira ondorengo argazkiak.

Milesker gurekin urtero jartzen duzun konfiantzagatik, eta baita ere era batera edo bestera parte hartu duzun guztiei, primeran pasatu dugu eta!!




garmendia tejas

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.comAukerak argi
dira! (40)Ekarpena gurekin
egiten!Datuak
erabiltzen dira!



atxi murka

#5. Iraila



uztako hondarrak aprobetxatzeko

Iraila

musika etxeak berotzen hasteko

Iraila

Argi epelen azken laztanetarako

Iraila

Plazak betetzeko

Iraila

Ixutu zein itxungitzen hasteko

Iraila

bakardade malenkoniatsuetarako

Iraila

+ + + + + + +
+ + + + + + +
+ + + + + + +

Iraila

Zubikoa Berria 2021-2022																					
Astelehena					Asteartea					Asteazkena					Osteguna					Ostirala	
Taupada	Amas	Aldatz	Ziburu	Gerniko	Taupada	Amas	Aldatz	Ziburu	Gerniko	Taupada	Amas	Aldatz	Ziburu	Gerniko	Taupada	Amas	Aldatz	Ziburu	Gerniko	Aldatz	Gerniko
9:15		Pilates Terap 1	TRX egun 1					Pilates + Ohutak 3				Pilates Terap 1	Krosbati egun 1	Gimn Terap 1				Pilates + Ohutak 3			Gimn Terap 1
10:15	Fit bike 1		Pilates + Ohutak 1		Hipopresiboak egun 1			Body Balance egun 1		Fit bike 1			Pilates + Ohutak 1	Gimn Terap 2				Anti Yoga egun 1			Gimn Terap 2
11:15		Kore Stretching egun 1		Senior Gimnasia 0,75					Senior Gimnasia 0,75				Pilates Post-parko egun 1							Senior Gimnasia 0,75	
15:00								Pilates + Ohutak 4										Pilates + Ohutak 4			
17:15	Fit bike 2	Body Tono egun 1	Krosbati egun 1		Fitbike Gaste egun 1	Hipopresiboak egun 1	Pilates + Ohutak 5			Fit bike 2	Body Tono egun 1	TRX egun 1					Kore Stretching egun 1	Pilates + Ohutak 5			Zurba Taki 16:45-17:30
18:15		Gimnasia Egokitua 1	Body Balance egun 1	TRX egun 1	Fit bike 3	Zurba 1	Pilates + Ohutak 6				Gimnasia Egokitua 1	Body Balance egun 1	Krosbati egun 1		Fit bike 3	Zurba 1	Pilates + Ohutak 6	Gimnasia Egokitua 1*			Zurba Gaste 17:30-18:15
19:15			Body Tono egun 1	Pilates Terap 2	Fit bike 4	1 Zurba Step	TRX egun 1					Body Tono egun 1	Pilates Terap 2		Fit bike 4	1 Zurba Step	Krosbati egun 1				Krosbati Gaste 18:15-19:00
20:15			Pilates + Ohutak 2	HIIT egun 1			Krosbati egun 1					Kore Stretching egun 1	Pilates + Ohutak 2					TRX egun 1			

FITNESS ESKAINTZA ZABALA ZUBIKOA KIROLDEGIAN

Ikasturte berrirako fitness eskaintza zabala prestatu dute Zubikoa kiroldegian ikasturte berrirako, goiko taulan ikus daitekeen moduan. Berritasunik ere bada tartean, ohiko *Pilates*, *Zumba*, *Fit bike*, *Body balance*, *Body tono*, *Gimnasia terapeutikoa*, *Hipopresiboak* edo *TRX* bezalako jarduerekin batera, azken aldian modan jarri diren beste hiru ekintza izango baitugu aukeran: HIIT, CROSSFIT eta OIHAL bidezko PILATES.

Intentsitate handiko tartearak banatzean oinarritzen den jarduera da HIIT, eta kaloriak erretzeko jarduera oso egokia da, besteak beste. CROSSFITa intentsitate handiko mugimendu funtzionaletan oinarritzen den programa da. PILATES+OIHALAK tonifikazioa, flexibilitatea, arintasuna, oreka eta koordinazioa lantzeraz zuzendutako jarduera da, baina pilatesen erabili ohi den materialaz gain, oihalak ere erabiliko dira.

Irailaren 15ean jarriko dira martxan jarduera ezberdinak, baina iraila osoan egongo da zabalik izen-emate epea. Gogoratu, dena den, plaza mugatuak direla eta ez dela komeni azken egunerako uztea. Informazioa eta izen-ematea: www.zubikoakiroldegia@onati.eus / zubikoa@onati.eus / 943716375



IGERIKETA IKASTAROAK ETA UR EKINTZAK

Ikasturtean berriaz Zubikoa kiroldegian antolatuko diren ikastaroetan parte hartu nahi duten haur eta gaztetxoek irailaren 20tik 24ra egingo den **IREKIERA FESTAN** parte hartu behar dute, derrigorrez. Kurtso berriari ongi etorria emateko modu bat izango da eta bertan ikusiko da neska-mutiko bakoitzak zein taldetan eman ahalko duen izena.

Irailaren 13tik 17ra eman beharko da izena Irekiera Festarako. Ondoren, irailaren 28an ikasleen eta abilezien zerrendak argitaratuko dira, eta ikastaroetarako izen-ematea **urriaren 5etik 12ra** egingo da.

HELDUAK

Helduei zuzendutako igeriketa ikastaroetarako (hastapena eta hobekuntza) eta ur ekintzetarako (Aqua Gym, Aqua Training eta Aqua Power) izen-ematea urriaren 5etik 8ra irekiko da eta urriaren 18an hasiko dira.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

“PREZIORIK ONENAK ETA GERTUKO ARRETA”

TELEFONO FINKOA

+ FIBRA
100Mb

+ 25Gb
MUGIKORRA
DEI MUGAGABEEKIN

+ 3Gb
2. MUGIKORRA
DEI MUGAGABEEKIN

39'90
€/HILEAN
(BEZ barne)

BETIRAKO. IGOERARIK GABE!
Alta ematea eta instalazioa **DOAN**

EXTRAK:

*Tarifa orokorretara gehitu daitezkeen aukerak

TV PREMIUM + **6** €/HILEAN

2. ETXEBIZITZA
FIBRA + FINKOA + **18'90** €/HILEAN
(Estalutako edozein herikari)

·MUGIKOR GEHIGARRIAK

5Gb + **3** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

8Gb + **5** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

25Gb + **8** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN



Atzeko kale 32, OÑATI · Tel.: 943 090 600 (Aitor)

MÁSMÓV!L



L I Z K E R
I N F O R M A T I K A



PADELA

edonoren eskura Soraluzen

UDAKO PROTAGONISTAK

TXIRRINDULARITZA

Aimar Madina (Aloña Mendi-ULMA) gazte mailako txirrindularia izan da uda partean nabarmendu den kirolarietako bat. Uztailaren 24an Euskadiko txapelketa irabazi zuen Zumaian, aurreko bi lasterketetan Lizarran eta Arantzazuko Igoeran, bigarren sailkatu ostean. Abuztuan zehar, Gipuzkoako selekzioarekin aritu da proba ezberdinetan, eta joan den astean Beasainen jokaturako Klasika premundialean 4. hellmugaratu zen.

Danel Casais (AMPO) ere oso maila onean ari da. Uztailaren 9tik 11ra Kantabriako Itzulia irabazi zuen. Abuztuaren 22an denboraldiko bosgarren garaipena lortu zuen Limpiasen (Kantabria) eta pasa den asteko Beasaingo premundialean 6. sailkatu zen. **Aimar Erostarbe** 20. sailkatu zen Espainiako txapelketan, Euskadi ordezkatzuz, eta abuztuan jokatu zen UCI mailako Ribera Duero Itzulian 7. sailkatu zen. **SAN MIGEL SARIAK** Irailaren 11n gazte mailako txirrindularientzako San Migel saria jokatu da, eta hilaren 18an Afizionatu mailakoentzako Oñati saria.

IGERIKETA

Irati Delgado Aloña Mendiko igerilariak brontzezko domina lortu zuen Euskal Herriko infantil mailako txapelketan, 200

Bizkarrean (2:30:19), eta 4. postua 100 Bizkarrean (1:08:77).

Bestalde, **Xabi Gordo** 3. sailkatu zen Ultra Ebre Swim Marathon 30 km.-ko zeharkaldian (5:35:54), eta 3. baita ere San Pedro eta Donostia arteko 5,3 km.-ko itsas zeharkaldian.

MENDI LASTERKETAK

Mendi lasterketei dagokienez, **Malen**

Osa gaztea izan da protagonista, Oroeleko Igoera (10,7km/+1000m) irabazi baitzuen (1:06:18) abuztuaren 8an Jacan.

Ainara Uribarri bigarren sailkatu zen Oroeleko Igoeran, eta garaipena lortu zuen abuztuaren 28an jokaturako Trail Valle de Tena lasterketan (20km / +1250m, errekor berria ezarri (2:16:25).

Bestalde, **Xabi Lete** 3. sailkatu zen Val de Aran (55km.) lasterketan.

OÑATIKO MENDI MARTXA

Irailaren 18an egingo da Oñatiko VI. Mendi Martxa. Goizeko 7:00etan emango zaio hasiera Ibilbide luzeari (33,3km /+1269m.), eta 8:00etan motzari (23,3km /+1189m.).

FUTBOLA

Irailaren 12an emango zaio hasiera Oho-rezko Erregional mailako futbol txapelketari, eta Aloña Mendik Aretxabaletako UDA taldea hartuko du Azkoagainen.

Padelean jokatzeko aukera dago jada Oñatin, Soraluze hotelaren atzealdean eraiki duten pistari esker.

Hirigintza-arauek ezarritako baldintzetara egokitu ostean (hasieran eraikitako estalkia kendu behar izan zioten), ekainaz geroztik erabilgarri dago padel pista, eta, egia hori, oso harrera ona izan du lehendabiziko hila-bete hauetan.

Soraluze hotelak golf zelaia kudeatzen duen Ireloze-Debalur klubaren esku utzi du padel pistaren gestioa, baina garbi geratu behar da ez dela beharrekia elkarte horretako kidea izatea padel pistan jokatu ahal izateko, eta edozein herritarrek alokatu dezakeela kirol azpiegitura berria orduka.

Horretarako, 665 739 477 telefonora deitu behar da. Ordaindu beharreko tarifa haxe: 4 euro pertsonako eta orduko, 9:00etatik 16:00etara, eta 6 euro pertsonako eta orduko 16:00etatik 19:00etara. Materiala ere (palak eta pilotak) lagatzen dute prezio horren barruan. Izan ere, Ireloze elkartekoen helburua da erraztasunak ematea jendeari azken urteotan modan jarri den kirol hau praktikatu eta probatzeko.

Gogoratu, Zubikoa kiroldegia berritze proiektuaren baitan, tenisaren ondoan bi padel pista egokitzeko asmoa dagoela, bigarren fase batean, baina ez dirudi epe motzean egin ahal izango direnik. Beraz, bien bitartean Soraluzen du aukera padelean jokatu nahi duten herritarrek.

IKASTAROAK

Ireloze klubak padel ikastaroak eskainiko ditu irailetik aurrera, astean bi egunetan, eta txapelketak antolatze asmoa ere badute, estalkirik ez edukitzea *handicap* inportantea izan daitekeela badakiten arren.

**665 739 477 zenbakira
deitu behar da
pista alokatzeko**

Gure beharra baduzu, ondo-ondoan gaituzu.

Hain ondo zaindu nahi
zaituztegu,
**Arrasate/
Mondragonen**
bertan ere artuko zaitu
Zuatzu Klinikako
espezialista-taldeak,
hogei urtetik gorako
esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.



Nafarroa Etorbidea, 4 (behea) . 20500 Arrasate/Mondragon
943 792 018 . www.clinicazuatzu.com

'KALEAK BIZIRIK!'

Ikuskizun berria estreinatuko dute Potx eta Lotx pailazoek irailaren 19an, Bilboko Campos Eliseos antzokian



POTX ETA LOTX pailazoek ikuskizun berria aurkeztuko dute irailaren 19an, eta handikiro aurkeztu ere, Bilboko Campos Eliseos antzokian izango baita estreinaldia, gure pailazo bikotea urtetik urtera egiten ari den gorako ibilbidearen erakusgarri.

Kaleak bizirik! du izena ikuskizun berriak, Potx eta Lotxen hirugarrena, *Herriko festetan* eta *Etxean-en* ostean. Oraingo honetan, osabak enkargu bat egingo die bi pailazoei: Kalera joan behar dute beraien bizilaguna izandako Izaskunen etxera. Horretarako ez dute denbora askorik izango, baina bidean jende askorekin egingo dute topo: kaleko musikari batekin, herriko alkatearekin, TAO/OTA zaintzen duen udaltzainarekin... Hauekin hainbat abentura biziko dituzte, barragarriak zein negargarriak! Lortuko al dute agindutako orduan Izaskunengana iristea?

Horixe, laburbilduta, ikuskizun berriaren haria. Istorio erraza, itxura batera, baina zer pentsatua ematen duten gertaera eta pasadizo ugari biltzen dituen. Ohi bezala, gure kontraesanetako batzuk begien aurrean ipiniko dizkigute Potx eta Lotx pailazoek, umorearen ikuspuntutik beti

JUANJE MARGOAK

T. 627 818 247

amaia igartua
arkitektura

IGOGAILUA ETA FATXADAN ISOLATZAILEA JARRI NAHI?
RENOVE DIRU LAGUNTZAK MARTXAN
tel: 677 31 20 57 email: amaliigartua@gmail.com



Dekoratuaren diseinua Pernan Goñi artista oñatiarrarena da

ere. "Kaleko musikariaren pasarteak, adibidez, kultura-rekiko dugun jokabidea azalertzeko balio digu. Denoi betetzen zaigu ahoa kulturaren ontasunez berba egiten dugunean, baina, benetan, horren atzean zurikeria asko dagoela iruditzen zaigu", azaldu digu Josu Zubiak (Potx)

Botere-harremanei buruz (zein hobeto, pailazoa baino, horiek kolokan jartzeko?), eta kaleei bizia emateko denda txikiek eta tabernek duten garrantziaz ere egiten dute gogoeta, besteak beste. "Ez dugu pedagogia egin nahi. Gu ez gara nor jendeari esateko nola jokatu behar duen; baina bai gara nor gure artean ikusten ditugun kontra-esanak agerian jartzeko, eta gero ikusleek pentsatuko dute zein jokabide hartu horien aurrean".

Ordu eta laurden inguruko ikuskizuna da *Kaleak bizi-rik!*, familia giroan ikustekoa. Potx (Josu Zubia) eta Lotx

SARRERAK SALGAI



Bilboko Campos Eliseos antzokiko Teatro areto ikusgarrian izango da Potx eta Lotx pailazoen ikuskizun berriaren estreinaldia, irailaren 19an, eguerdiko 12:00etan. Sarrerak salgai daude jada <https://www.teatrocampos.com>

(Itziar Arkauz) pailazoez gain, beraien ohiko kolaboratzaile Ander Murillo eta Danel Terrán gazteek ere parte hartzen dute ikuskizunean, pertsonaia ezberdinei bizia emanez (kaleko musikaria, udaltzaina, alkatea...).

Dekoratua, aurrekoetan bezala, Pernan Goñi artista oñatiarrak diseinatu du. "Gure ideia eta gure mundu ikuskera ezin hobe jasotzen du Pernanek, eta oso gustura egiten dugu lan berarekin. Eskenatoki ederra prestatu dugu, orain artekoak baino handiagoak, eta soinu nahiz argi efektuak ere indartu egin ditugu" azaldu digu Zubiak.

OÑATIN ERE BAI

Bilboko estreinaldiaz gain, beste emanaldi batzuk ere lotuak dituzte (Azpeitian, Zumarragan, Donapaleu...) eta asmoa da Euskal Herri osora eramatea ikuskizun berria. Oñatin ere ikusi ahal izango dugu urtea amaitu aurretik, baina zehaztu gabe dago oraindik noiz eta non. ■

DEBAGOIENENKO ANTZERKI PLATAFORMA ABIAN



Eskualdeko antzerki eragileek 'Debagoieneko Antzerki Plataforma' (DAP) sortu dute debagoiendar guztiek antzerkia lantzeko aukera eskura izan dezaten. Plataforma hau ez dator ezer ordezkatzera, lehenik zegoen eskaintza osatu eta herri batzuetan dagoen hutsunea betetzera baizik. Hau da, Oñatin, orain arte bezala Irazan antzerki guneak jarraituko du, baina proiektu osoago baten babesa izango du.

IKASTAROAK: Urritik ekainera bitartean 8 urtetik gorako herritar guztiei zuzendutako ikastaroak eskainiko dituzte; haurrentzat ordubeteko saioa astean, eta helduentzat bi ordukoa (asten zehar) edo bi astean behin lau ordukoa (asteburuetan). Antzerkia gustuko baduzu eta antzezten ikasi nahi baduzu, idatzi: dantzerkiplat@gmail.com.

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Oñatiko Banda GAZTEA

Musika Bandak eta Jose de Azpiazu Musika Eskolak Oñatiko Banda Gaztea proiektua jarriko dute martxan

Ikasturte berriarekin batera proiektu berria jarriko dute martxan Oñatiko Musika Bandak eta Jose de Azpiazu Musika Eskolak elkarrekin: **Oñatiko Musika Banda Gaztearen** sorrera.

Herriko musikari gazteei formazioa ematea eta kontsolidatutako musika banda gazte bat edukitzea da proiektuaren helburua, etorkizunean Oñatiko musika banda nagusiko kide izango direnak hezitzen eta trebatzen joateko. Beste modu batera esanda, Oñatiko Musika Bandaren harrobia osatzea.

Aitor Biain Bidartek zuzenduko du banda gaztea eta astean behin (asteazkenetan, 17:00-18:30) entsaiatuko dute nagusien musika bandaren lokalean. Batez ere, Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleek osatuta egongo da banda gaztea, baina sustatzaileek deialdi irekia egin dute eta, hala, banda gaztean parte hartzeko interesa duten gazteek oinatikomusikabanda@gmail.com helbidera idatz dezakete mezua informazio eske.

Hogeit bat lagunek, gutxienez, taldea osatzea da asmoa, eta urtean bi kontzertu ematea: martxoan eta ekainean. Horrez gain, nagusien musika bandarekin batera ere parte hartuko dute Gabonetako kontzertuan.

► **ASTEAN BEHIN
ENTSAIATUKO DUTE,
ASTEAZKENETAN,
17:00-18:30,
MUSIKA BANDAREN
LOKALEAN**

► **URTEAN BI
KONTZERTU
ESKAINIKO DUTE,
ETA, HORIEZ GAIN,
GABONETAKO
KONTZERTUAN
NAGUSIEN MUSIKA
BANDAREKIN JOKO
DUTE**



**Aitor Biainek
zuzenduko du
banda gaztea**

Aurkezpenik behar ez duen Aitor Biain Bidarte (Oñati, 1983) izango da Oñatiko Banda Gaztearen zuzendaria. Informatika Ingeniaritza, Musikaren Pedagogia eta abesbatza nahiz orkestra zuzendaritzako ikasketak eginak ditu. EHUKo abesbatza, Bergarako Orfeoa eta Ganbara nahiz Hots abesbatzak zuzentzen ditu eta Oñatiko musika bandako kidea ere bada, besteak beste.



DEIALDIA

Oñatiko Banda Gaztea proiektuaren sustatzaileek deialdi irekia egin dute eta, beraz, bandan parte hartu nahi duten herriko gazteek helbide honetara idatzi dezakete informazio eske: oinatikomusikabanda@gmail.com



FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



• AURREKARIAK •

KARANBA TXARANGA eta BANDA GAZTE



Lehenago ere izan dira gazteen musika banda edo txarangak sortzeko ekimenak Oñatin. Hala, 1997an KARANBA TXARANGA sortu zen musika eskolaren baitan, Jabi Arrondoren zuzendaritzapean. Hiru bat urteko ibilbidea osatu zuen txaranga gazteak, auzo nahiz herri mailako jaietan eta musikaldi ezberdinetan parte hartuz, doinu alaiak interpretatuz beti ere. Txaranga hartako zenbait kidek musika bandan jarraitzen dute gaur egun.

Urte batzuk beranduago, 2003an, BANDA GAZTEA sortu zen, Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean. Helduen musika bandaren egitura barruan sortutako taldea izan zen, 30 bat kidez osatua, eta bizpahiru urteko ibilbidea osatu zuen. Hainbat kontzertu eskaini zituen Santa Ana antzokian. Talde hartako zenbait kidek ere musika bandan jarraitzen dute egun. Orduz geroztik ez da musika banda gazterik egon herrian.



2021-2022 IKASTURTEA LIBURUTEGIAN

TERTULIXAN IRAKURLE TALDEAK

2021-2022 ikasturtean gure **Tertulixan**-irakurketa klub- hamargarren urteurrena ospatuko dugu. Bi talde ditugu: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.

Zer egiten da irakurketa-klub batean? Funtsean, irakurri. Irakurketa klub baten dinamika erraza da: taldeko dinamizatzaile bat dugu irakurketak proposatzen dituen eta liburua etxean irakurtzen dugu. Hilean behin elkartzen gara irakurketa hori partekatzeke. Giroa lasaia eta atsegina da eta inor ez dago hitz egitera behartuta. Jarduera honen bitartez, irakurketak eta ideiak partekatzen ditugu; entzuten eta aktiboki parte hartzen ikasten dugu; irakurle kritikoagoak bihurtzen gara. Beti ikasten dugu zerbait eta komunitatea sortzen dugu.

Parte hartu nahi baduzu, **izena emateko epea irailaren 6tik 30era izango da**. Plazak mugatuak dira eta doakoa da. Saioak asteartetan dira, 18: 30etik 20: 00etara. **Hilean saio bat**. Urrian hasi eta maiatzean amaituko dugu. Guztira 7 saio izango dira.

IDAZKETA LANTEGIA euskaraz

Joxemari Iturralkdek dinamizatutako lantegia. Hiru urte daramatza martxan. Lantegi honen helburua honako hau da: Idazteko zaletasuna dutenei behar duten motibazioa, bultzada, formazioa eta informazioa eskaintzea.

Saioen datak finkatuta daude dagoeneko: urriak 25, azaroak 15, abenduak 13, urtarrilak 10 eta 31, otsailak 21, martxoak 14, apirilak 4 eta 25, maiatzak 16. Saiok astelehenetan izango dira, 18: 00etatik 20: 00etara. Plaza mugatuak!

Liburutegiko jarduera hauetan parte hartu nahi baduzu izen eman!! Animatu zaitez!

Irakurtzeak eta idazteak onura asko oparitzen dizkigute, beste era batera izateko eta gehiago izateko askatasuna!

Izena emateko:

- Liburutegian bertan
- Telefonoz: 943 716166
- Whatsappez: 688 732 826
- Posta elektronikoz: liburutegia@onati.eus

Udal Liburutegia

Zuntza 600 Mb | Mugikorra 7 GB

Simetrikotik + Dei mugagabeak

IRAUNKORTASUNIK GABE

BETIRAKO

42 € HILEAN BEZA barne

2. etxebizitza

Zuntza 600 Mb + finkoa

19 €

BANATZAILE BAIMENDUA

KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN

Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati

943 09 06 00

guuk

ZUNTZA MUGIKORRA TB

BEZA barne. Erabiltza 2020/11/30era arte egongo da indarrean Euzkoan eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko doako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hauetan bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifa linea prezioak izango dituzte, GB eta doako minutu kopuru berarekin. 1GB-ko doako Guuk tarifen kasuan, prezio berria 6,96€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorraren gabeziak 4 izango dira, linea nagusia kontutan hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorririk izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: finko eta mugikorraren nazionalitateko dei mugagabeak, 7GB eta 40MB min. Baga hori gairidituzten, abiadura 16 Kb/s-ia jabsiko da. Nahi duzuen eman diezakezu baxa zerbiztuari, baina bideratzailea 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 1214-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZA barne). Kontsultatu gureako baldietzak heinean: www.guuk.eus

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



IKUSKIZUNA

IRAILAK 5 / 19:00

ZIRKO IKUSKIZUNA



Oscar Páez eta Ariñe Azkuek osatzen duten Zirko Txosko konpainia eusko-galiziarrak *Indartsuak* ikuskizuna eskainiko du. Clwn-a eta akrobaziak uztartzen dituen ikuskizuna da. Udalaren ESK-UL-TU-RA egitarauaren baitan. **Errementari plaza**

AUZOETAKO JAIK

BIDEBARRIETA KALEKO JAIK

IRAILAK 3-5

Irailak 3: 19:30 Kontzertua ('Dena'); 21:00 Pintxo eta zizka-mizkak barran afalorduan; 22:00 Kontzertuak ('Pleura' eta 'Rodeo'); 01:00 Barraren itxiera; **Irailak 4:** 12:00 Umeentzako jolasak; 17:00 Mus txapelketa Zurrust tabernan; 19:30 Kontzertua ('Billy Club'); 21:00 Pintxo eta zizka-mizkak barran afalorduan; 22:00 Kontzertuak ('Txakurrak' eta 'Screamers&Sinners'); **Irailak 5:** 19:00 Zirko ikuskizuna ('Indartsuak')

ATZEKO KALEKO JAIK

IRAILAK 10-12 (Goienako plazatxoan)

MARTINTXO ETA MOJASORO BURUHAUNDIEN AURKEZPENA



San Martin auzoko jaietan *Martintxo* eta *Mojasoro* buruhaundiak estreinatuko dituzte aurtan. Bertako haurrek oso gustuko dute jaietako hasiera eta amaiera ematen dien *Martintxo* txerri txoa, baina hau txosnan egoten da eta, beraz, bi buruhaundi egitea erabaki dute, haurren jostagarri. *Martintxo* haurren inuzentzia irudikatzen du, eta *Mojasoro* gazteen errebeldia. Irailaren 18an (18:00) txorimalo berriekin argazkiak ateratzeko aukera izango dute.

Irailak 10: 17:00 Itxaflero jaurtiketa; 17:30 Zinta lasterketa; 20:00 Rock kontzertuak (Larru Beltzak eta Mila Modu); **Irailak 11:** 18:00 Txorimaloekin photocall-a; 19:00 Garagardo dastaketa; 21:00 Kontzertua (Maddi, Garazi eta Olatz); **Irailak 12:** 12:00 Artisau azoka; 16:00 MUS txapelketa; 20:00 Boletoen zozketa.

SAN MARTIN AUZOKO JAIK

IRAILAK 18

Irailak 18: 9:55 Martintxoren agerkundea; 10:00 Haur eta gaztetxoentzako orientazio proba; 12:30 Iñaxio Perurenaren erakustaldia; 17:00 Azoka; 18:00 Photocall Martintxo eta Mojasororekin + Marrazki erakusketa; 18:30 Papereazko hegazki lehiaketa; 22:00 Kontzertuak ('Joseba Irazoki eta lagunak' + 'Lukiek')

KONTZERTUAK

IRAILAK 18 /
BIZARRO TALDEA

Deshumanizazioa diskoa aurkeztuz

HITZALDIK

KZ GUNEKO ZUZENEKO HITZALDIK

'Ezagutu testuen ortografia berrikusteko aplikaziorik onenak': **irailak 7** (euskaraz) eta **9** (gaztelaraz) 12:00-12:30; 'Zer dira kriptomonedak eta zertarako erabiltzen dira?': **irailak 14** (euskaraz) eta **16** (gaztelaraz), 19:00; 'Eduki interaktiboa sortzeko doako tresnarik onenak'; **irailak 21** (euskaraz) eta **24** (gaztelaraz), 12:00; 'Kamarak munduan zehar. Ezagutu etxetik mugitu barik beste leku batzuk': **irailak 28** (euskaraz) eta **30** (gaztelaraz), 19:00.

AZOKA

IRAILAK 18 / 11:00-20:00

ARTISAUAK ETA BERTAKO PRODUKTUAK

Oñati, Arrasate eta Bergarako artisauak Elorregi auzoko errotondako parkinean.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko ogia,
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



IKASTAROA

YOGA hastapen ikastaroa

HASIBERRIENTZAT
Irailaren 13tik 16ra
eta 20tik 23ra



Oñatiko Santana Dharma Yoga Eskolak antolatuta, ikasturte berrian yoga praltikatu nahi dutenei edota yoga zer den bertatik bertara probatu nahi dutenei zuzendutako hastapen ikastaroa antolatu du.

Irailaren 13tik 16ra eta 20tik 23ra izango da ikastaroa, 8 egun guztira, astelehenetik ostegunera, **19:30etatik 21:00etara**, yoga eskolak Bidebarrietako 28an daukan lokalean. Izena emateko edota informazio gehiago nahi izanez gero, deitu **610 953 794** zenbakira edo idatzi mezua **yogaonati@gmail.com** helbidera.



Hileko gomendioa

Bidaiatzeko jarraitzeko go-go dutenentzat. Hurrengo bidaietarako furgoneta prestatu nahi dutenentzat. Zure ametsetako furgoneta prestatzeko gida bat. Gainera, distantzia luzeko ibilbiderik onenak eta bidaiarientzako gomendio interesgarri asko. **Vanlife. La guía para viajar por libre.** Lonely Planet



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ **943 78 21 16**
Irailak 1, 3, 4, 5, 7, 15, 17, 18, 19, 27 eta 28. Urriak 6 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ **943 78 01 22**
Irailak 20, 2, 29 eta 30.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ **943 78 05 58**
Irailak 22 eta 23. Urriak 1, 2, 3 eta 4.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ **943 78 11 28**
Irailak 2, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 16, 24, 25 eta 26. Urriak 5.

ZINEA



ZINE EMANALDI KOMERTZIALAK
IRAILEKO HIRUGARREN ASTEBURUAN
HASIKO DIRA.
KARTELDEGIA ZEHAZTU GABE
DAGO ORAINDIK

AURRERAPENA:

Oñatiko XII.
Laburmetrai
Rallya
azaroaren
6an
izango da



MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA DBH eta Batxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko pertsona bat behar dut. Idatzi 652 756 052 telefonora.

ALOKAGAI Despatxo edo gela alokagai Atzeko Kalen. 25 m², internet, gas... guztia barne. Beria. Deitu: 652756052

GARAJEA ALOKAGAI Garaje plaza itxia alokatzen da Ramon Irizar kalean. Bidebarrietatik eta Atzeko Kaletik hurbil. Deitu: 619 817 072.

ODOL ATERALDIA

IRAILAK 10 / 16:30-20:00
Enpresagintza fakultatean

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIAK
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



(*) Itten: arrastua, pistia

>> EUSKERAZ EGOGI

Labesuan egindako ogixa

Eroslia: *Ogi bat, faborez.*Saltzaillia: *Egurrezkua?*Eroslia: *Ez, hoba urunezkua!*

Danok dakigu egurrezko ogirik eztaguela, orain arte ezagutu ditudunak, behintzat, urunez, azkarritz, urez eta gatzez egindakua izan dira eta.

Oraindiok be labesua egitten dan etxietan, lehenengo aittatutako osagai horreik hartu, gero eurak bihar dan moduan nahastuaz oria egin, ondoren lotan itzi eta, denporagarrenian, harroketan danian, ondo berotutako labian erreten da. Eta labia beroketako lizar-abarrak edo bestelako egurrak ebalten dira, hain justu be, labia ladrilloz egindda daguelako eta ez egurrez, eta hori erregeaxaz berotu bihar dalako, ogixa izango bada.

Hortaz, ez ogixa, ez labia egurrezkuak eztatanez, zela izendau biharko geuke egurrez berotutako labian erreten dan ogixari? **Labesuan egindako ogixa** aukera ona izango litzake; izan be, egurrez egin izan da betik labesua, zuztarra dako eta, gaiñera, ondo sartzen da begittatik eta belarritatik. Beraz:

Eroslia: *Ogi bat, mesedez.*Saltzaillia: *Labesuan egindakua?*Eroslia: *Bai, horixe!*

Lehenagoko labia

Labesua egin = ogixa egin

Azkarritza = legamia; *levadura*

>> JAKINGARRIXA

Herriko zein auzotan dagoz 'soro' (1) izenagaz osotutako baserri- eta leku-izen honeik?


1. Jausoro 2. Mojasoro
3. Gastiasoro 4. Soroandietta (2)
5. Lopiasoro 6. Ziarsoro
7. Ormaisoro 8. Goiensoro
9. Epersoro 10. Artasoro 'Artaso'

- a. Larraña b. Arantzazu
- c. Lezesarri d. Murgixa
- e. Araotz f. Olabarrieta
- g. Uribarri

(1) Soro: boldaatutako sailla

(2) [Sorandietta]

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Felix Ruiz de Arkaute Oñatin

Aurtengo garagarrillaren 24an bete da mende erdi Felix Ruiz de Arkaute euskal espeleologo ezaguna hil zala, gazte asko, Erronkari eta Zuberora artian dagueen **San Martin** izeneko leize-zulo sakonian. Berrogeta hiru urte besterik etzeukan, baiña hain epe laburrian makiña bat ahalegin egindda fan xakun, espeleologia saillian batez be. XX. gizaldiko 1950 eta 1960ko hamarkadetan zenbat kobazulotara ez ete zan sartu Euskal Herrixan, euren barruko sekretuak deskubriduaz eta ezkutuko edertasunak erakutsizaz.

Felix Ruiz de Arkaute Van der Stucken **Anberesen** jaixo zan 1927xan. Aitta tolosarra zan eta ama belgiarra. Gaztetan Frantziako **Grenoble-ra jo eben**, ikasketak egin alde. **Han zaletu ei zan espeleologia-munduaz**. Laister baiña, 1951an, Tolosara etorri bihar izan eben familixiak han eukan papel-fabrikan ardurak hartzera. Hona heldu ahalaz bat, Aranzadi zientzia-alkarteko kideekin hartu-emunetan jarri zan, espeleologia-kontuetan jarraitu ahal izateko. Eta hala **Jesus Elozegi** tolosarra, **Juanito San Martin** eibartarra edota **Reyes Korkostegi** oñatiarra ezagutu zittuan, sasue haretan Oñatiko Gezaltza-Arrikutz-Jaturabe lurpeko sistema karstikua azterketan zihardutenak.


Harrezkero, sarritan inguratu xakun Arkaute **Arantzazu-Araotzeko** zirkinzulo horreittara, eta bere espeleologo-taldetxua moldauaz fan zan: gure herriko taldekidien artian **Jose Luis Txintxurreta**, **Pedro Maiztegi** eta **Modesto Zilaurren** egozen hasieran, **Roland Rigault** eta **Antonio Arratibel** gerotxuago. Oñatin ez ezik hemendik kanpora be ibilli ziran gure herritarrok kobazuluak arakaketan. Aranzadi alkartiak 1956xan “Euskal Herriko I. Espeleologia-jardunaldixak” antolatu zittuan Arantzazun, Arkauteren parte-hartze inportantiarekin. Hurrengo hamarkadaren hasieran geldialdixa euki eben hemengo taldiak. Baiña Felixek ez eta, 1967-1968 aldera beste jeneraziño txantxiuar batek espeleologia-arluari heldu otsanian, tolosarra izan zan **belaunaldi bixak lotu zittuan kate-begixa**.

Alderdi askotatik begiratuta, urte zaillak izan arren, **espeleologiak pultzakada nabarmena** euki eben Oñatin 1960ko hamarkadiaren akaberan eta hurrengo urtietan, gorabehera eta guzti, gaur egunera arte sendo iraun dauena. Arkautaren azken etapan zeregin horri ekin otsain gazte batzuk ondorengo honeik izan ziran: **Pierre Rigault**, **Felix Ugarte**, **Jexux Etxebarria**, **Jexux Etxezarreta**, **Luxio Ugarte**, **German Maiztegi** eta beste hainbat. Geroztik, ixa gizaldi erdixan, jardun dauen eta diharduen Oñatiko eta inguruetakoko espeleologo pillia frankismo garaixan ereinddako hazixaren frutua da.

Gaurko argazkixak orduko ibillerak gogoraketako aitzakixia eskintten dosku. Beste fotografixa batzuetan Arkaute tolosarra espeleologo oñatiarrekin agerketan da, baiña, ezezagunagua dalakuan, hau aukeratu dogu. **Gezaltza baserriko larraiñian** agiri dira 1955 aldera, ezkerretik eskumara, **Felix Ruiz de Arkaute**, **Graziano Anduaga** eta **Esteban Larraioz**. Hau da, Gezaltzako aittona eta bertsolari famaua, Aranzadi alkarteko bi espeleologuen artian. Honeik hurrian dagueen lizunian, leize-zuluan, ibilli barri izango ziran, jakiña.

Fotografixia Oier Gorosabelen “Espeleologia argazki-bilduma” izenekuan gordeta dago. Guri Jabi Azkoaga, Belen Zumalde eta Ander Lizarralderen bittartez heldu xaku. Luxio Ugartek argibide batzuk samurtu dosku. Milla esker danoiri!

Hau zure etxebizitza izan daiteke.



Amuebladora Mondragonesan
erreforma integralak egiten ditugu zure
ametsetako etxebizitza errealitate bihurtzeko.